

Maddi Sarasua Laskarai

Hiznet 2017-2018

Sakontze Egitasmoa

**EUSKAL HIZTUNEN ERREGISTRO INFORMALEKO ADIERAZKORTASUN
LINGUISTIKOA LANDU ETA INDARTZEKO BARNETEGI BATEN DISEINUA**

Tutorea: **Ainhoa Lasa**

Laburpena:

Euskal hiztunek erregistro informaleko adierazkortasunean nabaritzen dituzten gabeziak mahaigaineratu dira lanaren lehen partean. Arazo honen jatorria eta zergatiak ulertzeko saiakera egin ondotik, hau nola ematen den aztertu dugu, gaur egungo euskararen soziolinguistikan estrategikoak diren bi hiztun profiletan zentratuz: hiztun berri eta hiztun gazteengan. Arazo honi heldu nahian, norbanako hiztun orori, norbere erregistro informaleko hizkeraren adierazkortasuna landu eta indartzea ahalbidetuko liokeen proposamen praktikoa egin nahi izan dugu. Orogen buru, adierazkortasun linguistikoa potentziazera bideraturiko barnetegi baten lan hipotesia garatu dugu, hau praktikara eramateko lehen esperientzia pilotua diseinatuz.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Lanaren helburua, metodoa eta prozedura.....	4
3. Zertaz ari gara adierazkortasun linguistikoa diogunean?.....	4
4. Euskarazko adierazkortasun linguistikoa indartu beharraz (lanaren justifikazioa).....	5
4.1. Euskararen egoera soziolinguistikoaren kokapen historikoa.....	5
4.2. Hitzun berrien hizkeraren adierazkortasuna.....	10
4.3. Hitzun gazteen hizkeraren adierazkortasuna.....	12
4.4. Zer mailegutzen dugu erdaretatik? Euskararen estetikaz gogoeta.....	16
5. Euskarazko adierazkortasuna lantzeko barnetegi baten diseinua.....	20
5.1. Zergatik barnetegi bat?.....	20
5.2. Partaideak.....	22
5.2.1. Parte-hartzaileak.....	22
5.2.2. Gonbidatuak.....	24
5.2.3. Biltzailea.....	25
5.2.4. Talde eragilea.....	26
5.3. Lekua eta iraupena.....	27
5.4. Ereduak eta edukiak.....	27
5.5. Barnetegiko plangintza zehatza.....	31
5.5.1. Gogoeta espazioak.....	37
5.5.2. Liburuxka.....	38
5.5.3. Eguneko balorazioa.....	39
5.5.4. Eguneko ardurak eta misioak.....	42
5.5.5. Egunez eguneko plangintza.....	43
5.5.6. Hilabete batera balorazioa.....	55
6. Ondorioak.....	56
6.1.Lanaren balorazioa.....	56
6.2.Lanak zabaldu dizkigun lanketa lerroak.....	56
7. Bibliografia.....	58
8. Eranskinak.....	61

1. Sarrera

Euskarak dauzkan hainbat arazoren artean, gaur egun, eguneroko erabileraren erronkan zentratzea dagokigu. Hiztun belaunaldi berriei buruzko azterketek honako hau utzi digute agerian: ezagutzatik erabilerarako tarte hori gainditu nahi bada, hiztun eleaniztunen hizkuntza portaeretan eragiten duten faktoreetan sakonki arakatu beharra dagoela (Darquennes 2011). Susmoa daukagu hiztunak lagunarteko esparruetan jarduteko daukan hizkeraren nolokotasuna badela hizkuntza portaeretan eragiten duen faktore garrantzitsu bat. Euskaraz lagunartean hitz egiteko hizkera indartsu, erakargarri eta adierazkorra izanen bagenu, euskara erregistro informalean maingu eta erdarara jo beharrean sentitu ordez, hizkuntza hautapenean eraginen ligukeelakoan gaude. Zalbidetik dion gisan (Hizneteko apunteak 2018), hizkuntza baten biziraupena eguneroko mintzajardun arruntean jokatzen da eta euskaraz eguneroko mintzajardun arruntean jarduteko gabezi bat daukagula perzibitzen dugu.

Neronek, ingurune oso euskaldun eta linguistikoki anitza daukadan salbuespen pribilegiatutik, nigan sentitzen dudana gabezia da. Alta, ene inguruan euskara bizi eta aberatsa jaso izan dut, hainbat euskalki eta hizkera desberdinetakoa, mintzamoldea lantzen duen jendez inguratua hazi naiz eta nik ere hizkuntzazko hainbat diziplinatan euskarazko adierazkortasuna lantzeari ekiten diot. Haatik, ezin izaten dut ekidin, lagunartean ene hizketa adierazkortzeko erdaretara jotzea. Nigan sentituak eta inguruan perzibituak erdaretako adierazkortasunak daukan indarra izugarria dela ondorioztatzen narama, euskararen ondoan. Euskararena indartzea dagokigu beraz, inertziak gure lagunarteko hizkerako esamolde erakargarri guztiak erdaraz izatera eramanez baikaitu. Zer leku eta erakargarritasun geldituko zaio orduan euskarari, beharrezkoena duen esparruan, hots, lagunarteko hizkeran?

Gogoeta eta proposamen hau ez dator, inola ere garbizalekeria ikuspuntu batetik. Alderantziz, guztiz natural eta baikorra irizten diogu hizkuntza batek inguruko hizkuntzetatik hitz adierazkorrak mailegatzeari. Neurri kontua dela uste dugu ordea, eta euskararen kasuan, mekanismo honek hartu duen dimentsioak arriskuak ikusgai ezarri dizkigulakoan gaude, kezka horretatik dator proposamen hau. Arazoa hainbat ikerketetan mahaigaineratua izanenez, lan honek ekarpen txiki bat izan nahi luke, modu experimental batean, arazo honi

heltzeko. Orrialde hauen xedea, proposamen praktiko eta lan hipotesi bat garatzea da, erregistro informaleko adierazkortasun linguistikoa indartzeko barnetegi bat diseinatuz.

2. Lanaren helburua, metodoa eta prozedura

Lanaren helburua adierazkortasun linguistikoa indartzea posible dela frogatzen duen esperimentu bat diseinatzea da. Horretarako, euskarazko erregistro informaleko adierazkortasuna landu eta indartzeko balioko lukeen barnetegi baten proposamena garatzera goaz. Lehenik eta behin, adierazkortasun linguistikoa definitzen saiatuko gara. Zertan datzan argi eduki beharko dugu, hori lantzeko esperimentu bat proposatu nahi badugu. Jarraian, lanaren justifikazioari ekingo diogu, zergatik ikusten dugun erregistro informalean euskarazko adierazkortasuna landu beharra. Erregistro informaleko adierazkortasun falta nondik datorren eta non antzematen den azalduko dugu. Hutsune hori adierazgarrien ageri den bi hiztun profil landuko ditugu horretarako, hiztun berriak eta hiztun gazteak. Bestalde, konkretuki hiztunek erdaretatik zer mailegutzen duten edota erdaretara zertara pasatzen diren aztertzen saiatuko gara, euskarazko gaur egungo hizkera informalak zer falta duen identifikatzeko. Lehenetsunez zer lexiko, zein esamolde edo zein ezaugarri adierazkor landu behar ditugun argituko zaigu horrela. Hau guztia azaltzeko jada eginiko ikerketak landu ditugu, hauen hutsunea nabaritu dugunean aldiz, geronek aztertzeari ekinez.

Ondotik helduko diogu euskarazko adierazkortasuna lantzeko balioko lukeen barnetegiaren diseinuari. Metodo gisan Bertso Udaleku, Euskal Udaleku eta Euskalduntze Barnetegien esperientzian oinarritu gara, hortik sortze prozesuari ekiteko. Behin, gure proposamenari forma emanda, eginikoa esperientzia hauetan aditu eta aritu direnekin kontrastatzen saiatu gara. Edonork barnetegi hau aurrera eraman nahiko balu, proposamen ahal bezain zehatza garatu nahi izan dugu. Azken lerroetan, lan hipotesi honetatik atera zaizkigun lanketa adarren eta lanketa moduen zertzelada batzuk emanen ditugu.

3. Zertaz ari gara adierazkortasun linguistikoa diogunean?

Helburu komunikatiboa betetzea, igorleak hartzailearengana helarazi nahi duen mezua ahalik eta hobekien iristea da. Hiztunak helarazi nahi duen mezuan, besteak beste, bere izaera, bere egoera animikoa, bere jarrera eta bere iritzia transmititzen dira. Mezua ahalik eta hobekien iristeko da garrantzitsua hizkeraren adierazkortasuna. Hizkeraren adierazkortasuna gauzak esateko moduari dagokio, ez zer esaten den, nola esaten dugun baizik. Testuinguruaren arabera, bizia, aberatsa, erakargarria eta irisgarria den hizkerari deritzo hizkera adierazkorra, indarra duen hizkerari. Erregistro formalerako darabilkiguna ere hizkera adierazkorra izan daiteke noski; hizkera matematikoa adibidez, “lau eta lauren batura zortzi da” esan beharrean, “lau gehi lau zortzi” esatea bada adierazkorra.

Hala ere, guri lanean, erregistro informaleko adierazkortasuna interesatzen zaigu. Hori ikusten baitugu landu beharra, alde batetik, horretan ikusten baititugu hutsuneak, bestetik, hori baita, gure ustez, hizkuntzaren biziraupenerako erabakigarria. Euskara adierazkorra ez dago halabeharrez euskalki bati lotua. Hala ere, euskalkiak historikoki esparru informaletan garatu izan direnez, egia da euskalkietan murgildurik egon diren pertsona askok adierazkortasun oparoa garatu izan dutela, euskalkiek ibilbide aberatsagoa izan baitute, ibilbide urriagoa eta eremu eta erabilera formalagoetara mugatuagoa izan duen euskara batuak baino. Dena den, azpimarratu behar dugu, Larrinagak dion gisan (Argia 2002), adierazkorra izatea hiztunei dagokiela, izan batuan, izan euskalkian. Edozein hiztunentzat balioko luketen adierazkortasun baliabideak lantzea izanen da gakoa.

4. Adierazkortasun linguistikoa landu beharraz

4.1. Euskararen egoera soziolinguistikoaren kokapen historikoa

Gibelera begira ohar gintezke, gaur egungo errealtatearekin alderatuz gero, euskal gizartea izugarri aldatu dela, bai euskal hiztunaren profila baita ingurugiroa ere. Alde batetik, duela bostehun urte eskas, euskal gizartea ahozkotasun erabatekoan bizi zen gizartea zen. Bestetik, Erdi Aroan, euskaldun gehienak elebakarrak ziren. Ahozko tradizioko euskara aberats, bizi eta adierazkorra antzeman genezake ahozko literatura tradizionaletik datozkigun lekukotasunetan.

Alabaina, dakigunez, garai latzak bizi izan ditu euskarak. Erdi Arotik honantz, beste hizkuntza handiez inguratua eta gutxitua biziraun behar izan du, hiztun galtze ikaragarriak jasanez. XX.mendeko euskararen berreskurapen prozesuan “biziraupen” estrategiak jarri ziren martxan. Euskara zabaltzea eta transmititzea zen lehentasuna, eta ikastolak eta euskaltegiak sortzearekin batera, euskara batuaren finkatzea. Gisa honetan, azken lau hamarkadetan indar izugarriak eman dira euskararen irakaskuntzan; erabilera esparru berriak erdietsi ditu euskarak eta hiztun galerari buelta ematea lortu da. Euskara gaitasuna goraka doa Euskal Herrian: 1991.urtean %22.3 ziren euskaldunak, 2016an %28.4. Euskaldun hartzaileek ere, 25 urte hauetan, abantzu 9 puntuko hazkundera izan dute (% 7,7 ziren 1991ean, % 16,4 iaz).

Amonarrizek (2015) dioskunez, hauexek izan dira lehentasunak: estatusari dagokionez, euskararen ofizialtasuna eta lege babesa. Bestalde, normalizazio prozesuaren erakundetzea. Honez gain, hiztunak lortzea, euskarazko irakaskuntza ereduak zabaltzea eta eremu sozio-funtzionalak irabaztea. Korpusaren inguruan, batua finkatu eta zabaltzea eta horretarako terminologia, testu-liburuak, hiztegiak etabar lantzea. “Erabilera informalak edo ahozkotasuna ez zeuden jorratu beharreko lan-ildo garrantzitsuenen artean” (2015: 106).

Zoritxarrez, datu soziolinguistikoei begira ohar gintezke, irakaskuntzan, euskara ikasteak erabilera bermatuko zuela eginiko aurreikuspenak ez direla bete. Zalbidek (2016) aipatzen digu “ikasi, beraz, erabili” paradigmak huts egin duela. Euskararen gaitasuna gazteen artean goraka doan bitartean, erabilerak azken urteetan beherantz egiten du; 2001ean gazteen euskararen erabilera %13.6koa zen, 2017an berriz, %12.3koa.

Amonarrizek (2015) iradokitzen digun legez, uste baino konplexuagoa da euskara ikastetik erabiltzera dagoen jautzia. “Eguneroko errealitateak eta egindako ikerketek erakusten zuten, D ereduko ikasleen euskara maila eta erabilera, ez zirela espero edo nahi zirenak” (2015: 107). Maila formalean aritzeko gaitasuna lorturik ere, ikasle anitzek ez dute egunerokotasunean euskara erabiltzen eta zailtasunak dituzte lagunarteko erregistroan euskaraz mintzatzeko.

Belaunaldien arteko eten sakona aipatu beharrean gaude: Alde batetik, jakobinismoa eta frankismoaren pean jasandako eten politiko kulturala, bestetik, 60 eta 70.hamarkadetako

industrializazioa, immigrazioa eta modernizazioak euskararen aurkako baldintzetan ekarri gizarte aldaketek eragina. Adineko euskaldun anitzek zabaltzen hasi zen euskara batu berri hori arrotz ikusi edo gain-baloratzeko joera izan dute, horien euskara gutxietsiz. Aldi berean, gazteek, ez dute modu osatuan jaso aurreko belaunaldien hizkuntza ondarea; “ez diote berezko baliorik eman eta ez dute erabili erreferentzia moduan” aitortzen du Amonarrizek (2018: 11). Bi gizarte eredu bereizi izan dira, baserri giro euskalduna eta hiri giro erdalduna. Honela mintzo da Sarasua (2013) etxeko transmisioaren hutsuneez :

“Gure belaunaldian askok ez dute beren guraso zaharren hizkuntzaren jabekuntza osoa egin, tonuetan, doinuetan, hitzetan, ñabarduretan. Eta haien haurrek are jabekuntza urriagoa egin dute haienagandik. Eskolak egin beharko lukeenari buruzko teorietan gabiltza, eta hizkuntzaren oinarritzko sehasketan senari jaregiten.”

Zalbidek azaldu bezala, euskal hiztunaren profila izugarri aldatu da (Tribuaren Berbak, 2015). Gaur egun datu soziolinguistikoei begira, haur eta gazteak dira euskaraz gehien egiten dutenak. 1991. urteko inkesta soziolinguistikoa aldiz, adin-tarte guztietan euskaldun gehienak sortzetik euskaldunak ziren; euskaldun zaharrak. 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa erakusten duenez, azken urteetan, hiztun berriek berebiziko garrantzia hartu dute, batez ere gazteen artean. VI. Inkesta soziolinguistikoa agertzen da, gaur egun 16-24 adin-tarteko biztanleen %55a euskalduna dela eta haietatik erdia baino gehiago direla hiztun berriak, gehienak murgiltze-ereduetan ikasitakoak. “60ko hamarkadan gazte gehienak erdaldunak ziren eta gazte euskaldunen artean gehienak euskara etxean jasotakoak. Mende amaieran, aldiz, gazte gehienak familia erdaldunetan hazitako euskalkirik gabeko euskaldun berriak ziren” (Amonarriz 2015: 107). 1991an euskaldun gehienak (% 79,3) euskaldun zaharrak ziren, 2016an euskaldunen erdiak baino ez du jaso euskara etxean, euskaldunen % 50,2a da euskaldun zaharra.

Euskal hiztun profilari begira, beste datu garrantzitsu bat da “euskal elebidunek” pisua galdu dutela eta gaur egun, euskaldun gehienak “erdal elebidunak” direla, hots, erdaraz euskaraz baino hobeki moldatzen direnak. Lehen prototipoa euskaldun zahar alfabetatugabea bazen, orain euskal hiztun prototipoa ahozkotasuneangabeziak dituen erdal elebiduna da.

Azken hamarkadetako datu soziolinguistikoek hainbat erronka utzi dizkigute agerian. Kale erabilerako datuek erakusten digutenez, mende honetan, euskaraz gehien egiten dutenak haurrak eta gazteak izanik ere, azken hamarkadan datuak beherantz doaz. Haurren erabilera 2013an %19.2koa bazen, 2017an %18.3koa da, gazteen erabilera %13.4koa zen 2013an, iaz berriz, %12.3koa.

Erabiltzen den euskararen nolakotasunari so egiten badiogu, erdaren interferentzia etengabeaz ohartuko gara (Amonarriz 2008). Nahasteko moduak eta neurriak leku batetik bestera eta pertsona edo egoera desberdinen artean anitz aldatzen badira ere, erdaren eragina orokorra eta sakona da. Erdal esamoldeak batetik (“Gauza gehiegi dauzkat. Ke puto agobio”. “Berant arribatuko naiz. Fait chier”) eta erdal lokailuak bestetik (“Bai mais en fait ezingo dut”, “nahi nuke genre asteburu bat”, “segun zer den”, “da como gazta bat”...) guztiz naturalizatuta dauzkagu gure eguneroko hizketa moldean.

Iparraldeko eta hegoaldeko hiztunen arteko urruntzea eragiten du honek (Sarasola 1997). Erdaretatik harturiko hitz kolokial anitz desberdinak dira (“scootez klopa pipatzen ari zelako trottoira jo du ta bi errotak xeatu ditu”, “berez tipo majoa da baña juergan kaña gehiegi edan ta kuadrillarekin sunormalana iten eon zan”). Hizkera kolokialean eta argotean (biraoak, sexu-hizkera), euskarazko hitz eta esamoldeak utzi eta erdarazkoak hartu dira (“bandatu-enpinatu”, “paja bat bota”, “dragatu-ligatu”, “flikak”...) Ibon Sarasolak etorkizunean bi euskalki izanen direla susmatzen du: iparraldeko euskalkia eta hegoaldekoa. Koldo Zuazok ere eman ditu bilakabide honen inguruko argibideak.

Amonarrizek (Hizneteko apunteak 2018) dioenez, asko zabaldu da hizkuntzaren kalitatearen inguruko kezka, eta urtez urte, gai honen inguruko liburu, artikulu eta txostenak ugaltu egin dira (Sarasola, Garzia, Lertxundi, Saizarbitoria, Salaburu, Zuazo, Izagirre, Aranbarri, Idiazabal, Larringan, Rubio eta Altonaga hartzen ditu adibidetzat). Mende honen hasieratik, euskalkien edo hizkera kolokialen aldeko joerak indartu dira eta eztabaida hau irakaskuntzara eta hedabideetara ere zabaldu da. Amonarrizek dion gisan, pare bat hamarkadetan, kezka eta helburu nagusia hiztun berriak lortzea izatetik, erabilera eza edo erabilitako euskararen nolakotasuna bihurtu da. Kezkek anitzetan euskalduntzen ari diren belaunaldi gaztearengan fokalizatzen dira: frantseuskararen edo euskañolaren indarra gazteen komunikazioetan, euskaraz eskolatu diren gazteek euskaraz modu egoki eta eraginkorrean

komunikatzeko duten ezintasuna eta zailtasunak... Adibide bat hartzearen, honela dio Altuna (2004): “Azken urteetan, euskararen normalizazioan lanean ari den jendearentzat, eta, batez ere, gazteekin lan egiten dutenen artean, egoera informaletan euskarazko erregistro kolokiala lantzeko beharra nabarmen ikusten da” .

Haur eta gazteen adierazkortasun mailak, hizkuntza kalitateak eta hizkera ez formalek kezka sortzen dute. Kezka hauekin batera, Amonarrizek aipatzen du, azken urteotan hizkuntza gutxitu anitzetan sortu den eztabaidagai batek indar berezia hartu duela gurean ere: euskalkien funtzioa eta erabilerak. Berriaren 2010-XII-19ko “Hizkeraz hizketan” erreportaiko aditu batzuen iritziak ematen dizkigu: “Euskara batuaren erregistro kolokialaz ez gara arduratu” (Koldo Zuazo), “Hizkuntza erregistroen errepertorio egoki bat izatea euskararen normalkuntza bidean atzean utzi ezin den gaietako bat da” (Imanol Esnaola), “Gazteek ez dituzte bere egin hitanoa noiz, zeinekin eta nola erabili zehazten duten arau sozialak. Transmisioan etena egon baita” (Josune Zabala).

Azkenik, aipu luze baina esanguratsu hau gurera ekarri beharra sentitu dugu erranikoa borobiltzeko:

“Egun badakigu egoera zein den: euskaldun askok gabezia nabarmenak ditu ahozko adierazmenean (baita idatzizkoan ere). Hori, ordea, larria al da? Arazo horren larritasunaren inguruan iritzi oso kontrajarriak entzun eta irakurri ditugu azken urteotan. Zorionez, ordea, azken urteotan, hainbat ikerlarik egindako lanak ez du zalantza izpirik uzten: Arazoa larria da. Bide honetan jarraituz gero etorkizuneko hiztunek (etxetik euskara dakartenek zein eskola bidez ikasi dutenek) ezintasun latza izango dute euskaraz adierazi nahi dutena adierazteko. Arazoa ez zatekeen horren larria izango ondoan espainola eta frantsesa izango ez bagenu, izan ere gure ezintasunak konponbide erraza du: erdarara jotzea.” (Argia 2002)

Ororen buru, atal honetan, iraganeko euskal gizartetik gaur egungora, euskararen nolakotasunaren eta hiztun profilararen aldaketa ikusi ditugu. Baita euskararen biziberritze prozesuan izandako lehentasunak eta gaur egun, erabileran eta adierazkortasunean agerian gelditu diren erronkak ere.

Erregistro informaleko adierazkortasun faltaren auzia azaltzeko euskararen bi hiztun profil espezifikotara joko dugu: gazte euskaldunen eta euskaldun berrien kasura. Bi talde

estrategikotzat dauzkagu euskaldun gazteak eta euskaldun berriak, alde batetik, datu soziolinguistikoetan ikusi bezala, horiek baitira euskararen etorkizuna segurtatzeko giltzarri. Bestetik, hain zuzen ere bi hiztun mota hauen diskurtsoetan sumatzen baitugu bereziki, lagunarteko euskara indartzeko beharra. Profil hauetako hiztunen lagunarteko euskara aztertzearekin batera, dituzten behar linguistikoak sumatzeko, hiztunek beraiek, darabilten euskarari buruz jarduterakoan, behar hau nola adierazten duten ikusiko dugu.

Hiztun profilen mugatze hau egiteak ez du inondik ere erran nahi beste profil batzuetan ez dagoenik lagunarteko euskararen adierazkortasuna indartu beharraren auzirik. Esaterako, Patxi Goenagak (2010) edota Garbiñe Bereziartuak (2016) Azpeitiaren kasuan begiratzen diote kezkaz erdarazko interferentzien indarrari. Altunak (2004) baieztatzen du hau: “Euskara gehien erabiltzen den herrietan ere, gazteek erregistro kolokiala erdaratik hartzeko joera dute, nahiz eta euskarak erregistro hori izan eta beraiek esamolde berriak sortzeko gai izan” .

4.2. Hiztun berrien hizkeraren adierazkortasuna

Gorago ere azaldu dugun moduan, 1991an, euskaldunen %13.6 ziren euskaldun berriak, 2016an aldiz, euskaldunen %36.2a osatzen dute euskaldun berriek. Gaur egun, 16-24 urte bitarteko euskaldunen erdia baino gehiago euskaldun berria da, % 54,3 (VI.inkesta soziolinguistikoa). Ortega eta besteren (2016) lanean bezala, euskara familia-transmisioa ez den beste bide batean ikasi duten pertsona guztiak hartuko ditugu euskaldun berrizat. Hasteko, zehaztu beharra dago, euskaldun berri mota ugari daudela, euskara euskaltegian (euren borondatez) edo ikastetxeetan (burasoek erabakita) ikasitakoak, eremu euskaldunetakoak edota nagusiki erdaldunak diren herrietakoak. Gaitasun mailaren arabera ere bereiz litezke hiztun berriak. Ortega eta besteren (2016) lanean gaitasun aurreratua (C1 maila) duten hiztun berriekin egin dute ikerketa.

Ortega eta besteren (2016) lanean agertzen den euskaldun berrien multzo garrantzitsu bat testuinguru soziolinguistiko oztopatzaileetan bizi diren hiztun berriek osatzen dute. Hauek, euskara ikaskuntza-erakunde formaletan ikasi dute; batua da ezagutzen duten aldaera. Gaitasun aurreratu egiaztatua ukanagatik, euskaldun hauek, haien gaitasunarekiko zalantzak

eta segurtasun-ezak agertzen dituzte. Behin eta berriz aipatzen dute erraztasuna, etorria, adierazkortasuna, lagunarterako egokia den erregistroa edota hizkuntza emozionala falta zaizkiela. Jariotasun-maila nahikorik eza, kaleko hizkuntza kolokialaren falta eta erabiltzeko zailtasunak azpimarratzen dira ikerketan.

Ikerketako partaideek estandarra jakitea baliagarria dela onartu eta «denon hizkuntza» izateko funtzioa aitortzen badiote ere, anitzek ez dute “benetako euskaratzat hartzen eta «artifiziala», «hotza», «aspergarria», «plastikozkoa», «liburukoa», «formala» edo «akademikoa» dela diote” (2016: 154).

Euskalkiekiko miresmen eta inbidia nabari zaie euskaldun berri hauei. Aipatzen duten balio integratzaileaz gain, aldaera dialektalek lagunarteko erregistro informala gorpuzteko funtzioa dute. Ortega eta besteren (2016) lanak iradokitzen digun gisan, hiztun berriek falta dutena ez da euskalkia, erregistro informalerako hizkera adierazkorra erabili ahal izatea baizik. Haatik, dakigunez, ez daukagu, gaur egun, batuan oinarrituriko erregistro informaleko hizkera adierazkorraren eredu askorik. Pentsa liteke, hau, modu natural eta informalean sortu beharko litzatekeela, hizkera informala formalki sortzea paradoxikoa litzatekeelako eta ziurrenik eraginkortasunik gabekoa. Hala ere, oro har euskaldun berriek informala garatzeko adierazkortasun baliabide falta sumatzen dutela eta erdaretara jotzeko joera daukatela ikusi dugu.

Testuinguru soziolinguistiko desberdinetan bizi diren euskaldun berri multzo desberdinak aztertutik, ikasketa lekua eta adina baino, zer euskara mota eta non (eremu formaletan bakarrik ala informaletan ere) ikasi duten dela erabakigarria ondorioztatu dute Ortega eta bestek (2016). Izan ere, hizkuntza-gaitasunak eta hiztunak darabilen aldaerak, batua ala lekuan lekuko aldaera izan, batetik, eta nolako kaleko hizkera kolokiala erabiltzeko gai den, bestetik, berebiziko garrantzia dauka hiztun berriak sentitzen duen legitimitateari begira.

Argi dago, euskaldunek dituzten aurreiritziak, batik bat, euskalkien gainbalorizazioa eta euskara batua eta euskaldun berriekiko gutxiespena, lehen bai lehen landu eta gaudituz behar direla, sentimendu horiek ez baitiote inolako mesederik egiten euskarari. Alabaina, euskaldun berriek lagunarteko hizkeran adierazkortasun hutsuneak nabaritzen dituzten

bitartean, ez litzateke harrigarria ez hiztun oso sentitzea, eta ulertzekoa da, haien hizkera informaltzeko erdaretara jotzea besterik ateratzen ez zaien bitartean, inbidia eta frustrazioa sentitzen segitzea. Iruditzen zaigu, euskaldun berriek lagunartean euskaraz eroso eta gozagarriki jarduteko baliabideak eskuratzeak, hau da, hizkera batuak informalerako ere balio duela eta adierazkorra dela frogatzeak lagunduko lituzkeela “benetako hiztun” sentitzen.

4.3. Hiztun gazteen hizkeraren adierazkortasuna

Hiztun gazteen garrantzia ere ezinbestekoa da, belaunaldi gazteetan kokatzen baita gaur egun euskararen ezagutza mailarik altuena. Alta, beraiengan ikusten dugu erabilera ere ez doala proportzionalki gorantz. Bestalde, hainbat eta hainbat artikuluk plazaratzen dute, erabilerarekin batera, gazte hizkeren nolakotasunari buruzko kezka (Esnaola eta Illarramendi (2000), Larrinaga, (2014), Astiz (2014)...).

Komeni da zehaztea, gazteen artean, oso jatorri eta testuinguru soziolinguistiko desberdinak aurkitzen direla, eta horrek hizkuntza praktikan ere alde handiak suposatzen dituela. Gazte hizkera desberdin ugari daudela jakinik, ez ditugu eremu desberdinetan gazteek hitz egiten dituzten hizkera desberdinak deskribatuko; gazteek oro har elkarbanatzen dituzten hizkuntza ezaugarri orokorretan jarriko dugu arreta, bereziki Ibarren (2011) lana oinarri harturik.

Hainbat ezaugarri ematen dizkigu Amonarrizek (2014) gazte euskaldunen hizkera deskribatzerakoan. Baina orokorrean nabarmentzen duen ezaugarri nagusia erdaren interferentzia etengabea da, gazteek modu naturalizatuan jotzen dute erdaretara adierazkortasun bila. Erdara eta euskararen arteko interferentzia hauekin batera, kode aldaketa aipa genezake. Ibarren (2011) honako faktore hauen arabera egiten dela azaltzen du: landutako gaia, kontu estilistikoak eta pragmatikoak; dudarik gabe kontuan hartzekoa da kanpoko faktoreen eragina. Euskararen eta erdaren arteko interferentzia ez dela hizkuntzen arteko mailegu iragankorren kontu hutsa iradokitzen du, fenomeno sistematikoa baizik, komunitate elebidun gehienetan gertatu ohi den bezala (2011).

Ibarrak dionez, hizkuntza aldaketa eta dialektoen nahasketa hiriko dialektoen ezaugarriak dira. Gazte euskaldunen hizkera eraldatzen ari da, dialektoen nahasketa, uniformizazioa eta erdaretako elementuen interferentzia oso gogorra ekarrita lagunarteko diskurtsora (2011). Gero eta ezberdintasun gutxiago daude landako hiztunen eta hiriko hiztunen artean. Dialektoen nahasketaz gain, gazteen aldaera baterako eboluzioa dagoela ikusten du Ibarrak. “Hiztegia eta erabilitako esamoldeak batu egin dira eta gazte-hizkerara hedatu dira, nahiz eta hasieran aberaskumeen hizkeran sortu diren esamoldeak izan “*super, guay, flipatu, tope, kaña*” (2011: 165).

Gazteek darabilten lagunarteko hizkeraz zer ikuspegi duten eta hau nola bizi duten aztertzeari ekingo diogu ondorengo lerroetan. Lehenik eta behin, Amonarrizen (2014) honako adibide honetan, “Ermuan 13 urte inguruko koadrila bati, beraien artean messengerren nola idazten zuten galdetu, eta gazteek beraiek baikortasun osoz erantzun: “Guk euskañolez!”” ikus genezake, adin horretako gazteek “euskañolaren” kontzeptua oso barneratua daukatela. Euskara eta erdarak nahastea naturaltasun osoz bizi dute. Ipar Euskal Herriko hiztunen kasua ere bada hau, “frantseuskararekin”.

Ikerlan anitzetan ageri denez, gazteek balio berezia atxikitzen diote komunikazioari. Izan ere, gazte gehienentzat, hitz egitea, elkarrizketatzea edo euren itxura erakustea, ez da euren pentsamenduak, sentimenduak edo ideiak aurkezteko parada soilik, baita horien nortasuna eraiki eta gizarteratzeko aukera izatea ere. Berebiziko garrantzia ematen diote gazteek hizkeraren adierazkortasunari. Hernandezen (2005) lanean, gazteek sonoritate egokia duten espresioak atsegin dituztela esaten dute, indartsuak direlako eta naturalak diruditelako. Euskaraz behar bezain adierazkorak ez direla iruditzen zaie: “Ezin duzu exageratu! Badirudi norbait insultatu nahi baduzu euskara ez dela nahikoa, gaztelera behar duzu norbait insultatzeko, euskaraz ez du indarrik” (2005: 99). Gustukoen dituzten espresioak erdaratik datozela aitortzen dute gazteek.

“Ikasle batek nahikoa atsekabetua zirudien, bere ustez euskara gazte jendeak dituen beharretarako nahikoa ez delako: “Gazte izatea... Guk gure hizkuntza propioa behar dugu, gazteentzako erakargarriak izango diren euskal espresioak behar ditugu... Nire ustez espresio horiek hor daude baina zerbait egin behar da hor daudela erakusteko.”” (2005: 99)

Euskara ongi ezagutzen duten gazte horietako batzuk euskaraz idatzi eta abestea gustatzen zaiela esaten dute, baina besteekin hitz egiten dutenean, euskara ez dela nahikoa adierazkorra sentitzen dute. Arrazoi horregatik hitz egiten omen dute gazteleraz, edo gehienez, hizkuntza batetik besterako kode aldaketara jotzen dute. “Askoz erosoago da nire ustez erdera... askoz ere espresio gehiago ditu... eta ez dakit... hiztegi aldetik... ere bai dauka gazteok erabiltzen dugun... adibidez, esaten badizute...: que, te has hecho una paja? Ezin duzu esan: lasto bat egin zara? Ez? Ez dakit? Ez dakit nola esan...” (Hernandez 2005: 100).

Ibarra (2011) lanean hainbat gaztek txantxak egin edo haserretzeko orduan euskaraz adierazteko ziurtasunik eza eta naturaltasun falta sentitzen dutela agertzen da, baita sentimenduak adierazteko ere. Hori gazteak neurri handiengan kezkatzen dituen gauzetako bat dela diosku. Apalauzak (2006) dion gisan, gazteek erdaretara jotzen dute euskarazko ordainik ezagutzen ez dutelako, edota euskarazkoa ezagutuagatik, hura adinekoren hizkerari loturik ikusten dutelako. Amonarrizen (2008) lanean, gazte euskaldun anitzek ez dituztela lokuzioak eta esaera zaharrak ezagutzen edo ez dituztela ongi interpretatzen aipatzen da. Batzuentzat horien erabilera “pedantea” omen da eta horregatik jotzen dute erdal esamoldeetara.

Aurreko lerroetan agertu zaizkigun, gazteek sentitzen duten euskararen adierazkortasun falta, lagunarteko esamoldeen ezagutza falta, naturaltasun eza edo “helduen hizkera” denaren sentimenduaz gain, erdaretara jotzeko arrazoiaren artean, gazteentzat erregistro informalean kode-alternantziaren ezaugarria, kode transgresorea izan daitekeela erakutsi izan da (Amonarriz 2008, Anaut 2010). Gazteek euren nortasuna adierazten duen aldaera propioa behar dutela azaltzen du Ibarra (2011), beste taldeengandik bereizteko erabil dezaketena. Gazte hizkera kontraste-hizkuntza gisa ulertzen da: helduen kulturaren eta “haur kulturaren” aurkakotasunean batetik, bestetik, eskola-araua edo estilo-jasoarekin kontrastean: “Gaztelaniaz aurkaritza tresna aurkitu dute jargoian eta horren ondorioz, gazte-hizkeran maileguak anitz dira” (Ibarra 2011: 15).

Argia astekarian argitaratu (2013) artikuluko batean, arazoa etxean bertan bizi duten amen aipu hau jasotzen da:

“Geure umeak ere, txikitatik euskara hutsean heziak izanagatik, euskara natural eta aberatsa jasoagatik eta erdararekin arazo handiak izanagatik ere, urteak aurrera joan ahala, lagunaren artean eta neba-arreben artean erdaraz hasi zirela ikusi genuen. Euskara, haurrentzako, klase barruko tresna bihurtu zela ikusi genuen; ez dela harremanetarako hizkuntza”.

Ohar gintezke, etxean modu informalean eta naturaltasunez jasorik ere, beste faktore batzuk dutela eragina gazteek lagunartean euskarazko erregistro kolokiala erabili ala ez zedarritzerako orduan.

Esnaolak (2000) gazte euskaldun gehienentzat komunikazio behar kolokialak asetzeko hizkuntzarik praktikoena erdararen bat dela adierazten du: “Euskara arras desegokia edo esanahirik gabekoa gertatzen zaie.” Gazte euskaldunen erreferentziazko esparrua (gazte kulturaren esparrua) erdal ekoizpenek osatzen dutela azaltzen du. “Erdarazkoa da "teenage marketak" eskaintzen duena. Gazteen mundua erdaraz mintzo zaie, erdaraz bizi dute.” Gisa berean diosku Amonarrizek ere, erreferentzia eta irudi sinboliko gehienak erdaraz daudela: “Gazteen intereseko gaietan (musika, moda, kirola...) erreferentzia gehienak erdaraz daude eta esamolde, terminologia eta lokuzio eguneratuak falta dira euskaraz” (2008: 175).

Hernandezek (2005) azaltzen digu, gazteek hizkuntza trebeziaren inguruan aipatzen duten beste alderdi batek modako hizkeren kontrolarekin duela zerikusia, modan dauden espresioak eta adierazpideak ezagutzearekin. Gazteentzat honek umorearen erabileran kontrola izatea erran nahi du, ahal den naturalen eta espontaneoaren hitz egiteko edo adin horretako norbaitengandik espero dena ongi errateko gaitasuna izatea. “Moda jarraitzeak (berek esaten duten moduan: guay izatea) gazteleraz hitz egitea esan nahi du” (2005: 101). Zer esanik ez, iparraldeko gazteen kasuan, frantsesarekin. Jarraian euskal ikonoak ez daudela modan daudenen artean adierazten digu (pop izarrak, antzezleak, futbol jokalaria...). Gazteei gustatzen zaizkien gauza guztiak (telebista, musika, etabar) normalean gazteleraz daudela (edo ingelesez) diotso hegoaldeko ikasle batek: “Horietara gaztelerazko telebista edo aldizkari bidez iritsi zaitezke soilik” (2005: 101).” Egungo gazteek euskara ez dutela modako hizkuntzatzat, alderantziz, hainbat gazte girotan, euskara baserri giroa eta zaharren edota aldeanoen hizkuntzarekin lotzen dela aipatzen da.

Honela dio Esnaolak (1999): “gazte hauen diskurtsoari “gazte” kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki.” Gisa honetan laburbiltzen du (Esnaola 2000):

“Gazteen lagunarteko hizkera, taldearen erreferentziazko munduari dagokiona, erdaratik hornitzen den neurrian erdal erabilerez osatzen da. Gero eta nabarmenagoa da Euskal Herrian hizkuntza ukipenaren ezaugarriek (erdarazko eskaintza emankorra euskarazko basamortuaren erdian) hizkuntzan eragiten dutela (maileguak, kalkoak, alternantziak...)”

Bi ondorio ateratzen ditu honetatik, hizkuntza nagusiago batekiko menpekotasunak hizkuntza ordezkapena eragiten duela bata, ez du erdibiderik ikusten, erritmoak desberdinak badira ere, norabidea hori delakoan dago. Bigarrena, Euskal Herri osoko gazteak komunikatzeko behar den gazte hizkera erreferentzialik, ezta oinarrizkorik ere ez dagoela da. Gaur egungo ukipen egoeran gazte hizkeraren bi eremu sortzen ari direla azaltzen du: lehen aipatu dugun gisan, bata ekialdekoa (frantsesaren eraginpeko lurraldeetan gorpuzten ari dena), eta bestea mendebaldekoa (espainieraren eraginpeko lurraldeetan eratzen ari dena). “Bereizketa horren gainetik elkar lotzen gaituzten elementuak ahulegiak dira oraingoz joera hori itzularazteko.”

Laburbilduz, gazteentzat euskarazko erreferentzia kultural eta linguistikoak sortzeko behar larria antzeman dugu. Gazteentzat euskarazko mundu erakargarri bat sortzeaz gain, informalerako gazte hizkera adierazkorra lantzeari ekin behar zaio. Hitz egiteko modua hain garrantzitsua den adin honetan, dauzkaten erreferentzia eta jendartearen joera orokorrak eraginik, oso erraz eginen baitute irrist erdarara, gazteek behar duten hizkera mota lantzeari indar berezia ematen ez badiogu. Haatik, gazteek hizkera komunikatibo eta beste giza taldeetatik transgesorea izanen dena bilatzen dutela antzeman dugu, beharrezkoa izanen da beraz, horiek berek sortu eta esperimentatzea horien lagunarteko hizkeraren adierazkortasuna.

Hiztun berri eta hiztun gazteengan ikusi dugu beraz, lagunarteko hizkera adierazkorra lantzeko beharra. Euskararen lagunarteko erabilerari ekarpena egin nahi badiogu euskarazko adierazkortasuna landuz, euskararen soziolinguistikan hain esanguratsuak diren bi hiztun profil hauei balioko dien hizketa modua landu beharko dugu.

4.4. Zer mailegatzen dugu erdaretatik? Euskararen estetikaz gogoeta.

Esanguratsua da begiratzea, erregistro informalean, hiztunek konkretuki zer mailegutzen duten erdaretatik. Jada urte batzuk dituenaren jakitun, baina oraindik gaurkotasunik baduela iritzita, Esnaolaren lanetik (1999) jaso ditugu Arrasate, Galdakao, Segura, Dima, Altsasu, Portugalete eta Lizarrako 16-24 urte arteko gazteen hizkeratik bildutako mailegu batzuk.

Lokailuak: osea, esque, de hecho, si, y, porque, aunque, pero, pues, entonces, de hecho, por ejemplo, como, como si

Hitz edo esamolde adierazkorrak: hombre, haber, venga, claro, que va, oye, ahi va, ya esta, igual, vale, ya, segun, no, no se, bueno, en fin, vaya, total, esa, ya esta, mira, vamos, y tal, jope, quita, fijo, en fin, ostras, desde luego, digo yo, te apetece, lo que sea, no se que, yo que sé, por si acaso, buscarse la vida, para rato, más o menos, las de dios, comerse el marrón, comerse el coco, de repente, joder majo, en la puta vida, comer el coco, chungo, de la hostia, las de dios, como que no, mogollon, dale que te pego, chorrada, putada, un follon, que desastre

Izendatzaileak: loca, macho, tio, tia

Poztasunaren adierazleak: de puta madre, guay, la leche

Haserrearen adierazleak: hostia, joder, coño, hostia, tocar los cojones, no te jode, ni por el forro, hijo de puta, que hostias, le mato, de que vas, puto cabron

Mailegatutako hitzen sailkapena egin eta erabilitako modua ikusita, argi eta garbi, adierazkortasun baliabideak mailegutzen direla ondorioztatu dugu. Euskaldunak erdaretatik hainbesteko neurrian adierazkortasuna mailegutzen ari direla ikusirik kezka eta galdera ugari datozkigu burura. Hitz teknikoak mailegatzeari ez diogu halako kaltegarritasunik ikusten, baina emozio bizi eta barnekoenak adierazteko erdaretara jotzeak zer erran nahi euskararentzat? Zer mezu estali ari zaigu ematen guk gure hizkuntzaz sentitzen eta pentsatzen dugunaz? Euskaldunek erabiltzen dituzten hitz eta esamolde adierazkorrenak erdarazkoak badira zer indar, zer erakartze gaitasun eta zer bizi itxaropen izanen du euskarak? Zergatik nahiko du hiztun batek hitz adierazkorrenak erdaraz dituen euskara bat erabili? Zer

erakargarritasun eta funtzionaltasun du euskarak lagunartean? Faktore ideologiko eta atxikimendu emozional guztiak kenduta, faktore praktiko eta estetikoegi begira zer eskaintzen dio euskal mintzamoldeak lagunartean euskal hiztun bati?

Harira datozkigun Fermin Etxegoienen *Neurona eta Zeurona* saiakerako ideia batzuk aurkeztuko ditugu hemen. Etxegoienen liburuko tesi nagusia, euskarak hiztunak erakarri edo mantendu nahi baditu, eredu linguistiko erakargarria eskaini behar duela da. Hasteko, euskararen estetika tradizionalaren galera handia aipatzen du, erdal mundu globalizatuaren estetika erakargarriaren aurrean. Hizkuntzaren indar estetikoaz hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu, bere iritziz, oraingo mundu garaikidean, eremu linguistikoaren osasuna, batez ere, honek duen ala ez duen itxura multiformeari lotua baitago.

Jarraitzeko, euskararen identitatea jarri dugula erdigunean eta etikari kasu guti egin diogula deritzo. Izan ere, berak horretan ikusten du arazoa: “Erdararen etikak erakartzen gaituen euskaldunak gara.” (2004: 93). Euskararen kontrako injustizia historikoaz kontziente izanagatik, hiztun askok erdara hautatzen duela azaltzen digu, hizkuntza “osatuago” sentitzen duelako. Ondotik, agerian uzten digu, euskara ongi menperatzeko norberak egin behar duela osaketa lana. Honela idazten du “euskararen estetika osoaz jabetzeak lan handia eskatzen dio bai hiztun berriari baita hiztun zahar askori ere. Erdararen estetika osoan esfortzurik gabe bizitzen jarraitzeak baino askoz ere lan handiagoa” (2004). Frantsesak eta espainolak euskarari abantaila estetiko handia hartu diotela ikusten du, bereziki haien estetika linguistiko batuak zein partzialak modu errazean zabaltzeko eta edozein hiztunentzat ulergarri eta gozagarri bilakatzeko baliabideak daukatelako.

Etxegoienek, norbaitek euskarari “heldu ala ez” erabakitzerako garaian, euskal komunitatearekiko atxikimendu identitarioa oso garrantzitsua dela ikusten du. Baina segidan (ezagutza nahiko suposatuzat eman eta gero), hiztunari hizkuntzaren etikaren “arazoa” gainera etorriko zaiola gehitzen du. Orduan ikusiko duela benetan nolako atxikimendua duen euskal “mintzamoldearekiko”. “Egiazkoa ala itxurazkoa, gozagarria ala sufrikario-iturri, sortzailea ala murriztailea, haziz doana ala gutxituz...” (2004: 83)

Euren jatorrizko hizkuntzaren egokitzapen lanari ekin beharrean, erdararen estetika osatuagoa hobesten duen jendeari euskararekiko “akonplejatua” deitu izan zaiola gehitzen du.

Hiztun horien profil ugariak nabarmenduz, “Haietarik anitz, abertzale izateaz gain amaren altzotik unibertsitateraino euskaraz haziak eta heziak izan dira... Baina erdara nahiago dutela ematen du...” (2004: 87). Zer esanik ez orduan, profil identitario-abertzale horretan sartzen ez diren bestelako gazteen kasuan. “Herri erabat euskaldunetan jaiotzen ez bazara, sentzazioa da erdarek askoz ere manera gehiago eskaintzen dizutela berba egiteko orduan (dentsitate handiagoa eskaintzen ote duten sentzazioa)” (2004: 88).

Era berean, ahal bezain indar guti egitea guztiz jarrera naturala dela aipatzen digu, “esfortzu txikiaren legea.” Baina gutxiengo baten gain-esfortzuak gainerako hiztunentzat bidea ireki eta erraztuko lukeela dio: “Gizarte osoak hizkuntza minorizatu baten aldeko gain-esfortzuari eustea ez da ohikoena (...) Horregatik batzuek dena eman behar izaten dute hizkuntza bizimoduaren ardatz bilakatuz, besteek euskararen bidea zabalago aurki dezaten” (2004: 100). Idazleak, behin eta berriz argudiatzen digu estetika erakargarri eta komodoaren beharra, eta hortik, euskara bera estetika bezala ulertu, landu eta hedatzearen garrantzia.

Bestalde, garbizalekeria eta kontserbadorismoaren kalteak aipatzen ditu: “ausardi estetiko falta nabaria izan da gurean berriki arte, zeinaren erruz euskara molde “betikoetan” ez zetorrena errefuxatzeko joera handia erakutsi baitute bere burua “egiazko” euskalduntzat daukaten askok” (2004: 69)

Azkenik, liburuaren bukaeran, estetikaren auziari heldu eta hizkuntza lantzeari ekiteko garaia orain dela ulertarazten digu, euskarak ekinbide horretan nehoiz izan duen jende kopururik handiena eta prestatuena orain daukala argudiatuz. Euskal estetika berria (osatua) bi munduen arteko talkatik sortu beharko dela deritzo, iragana eta etorkizuna. Eraldaketari ekin ezean, “euskaldun zaharren” jatorrizko jakintza hori ere ez dela betiko eta belaunaldiz belaunaldi gutxituz joanen dela aurreratzen digu, testuinguru tradizionala bera desegiten den neurrian.

Ororen buru, euskara estetika linguistiko “totala” bilakatzeko denbora behar dugula dio: “bakarra bere anitzean eta anitza bere bakarrean”. Bitartean euskararen eredu batuera zenbait egoeretan artifizial suertatzea eta hiztun anitzentzat aldaera lokalak heterogeneoegiak izatea normala dela azaltzen du. Langai estetikoa daukagula moldatzeko argi ukanik egin beharrekoa den lana dela diosku: “horretaz kontziente egin behar dugu ahalegina: langai

estetikoa daukagula moldatzeko eta ez horrenbeste langai ideologikoa.” Borobiltzeko, Etxegoienen ustez, esku artean daukagun lana honetan datza: “euskararentzat estetika osoa erdietsi eta hiztun ez profesionalei erregistro linguistiko guztiak xehe-xehe eginda eskuragarri jartzea.”

Bukatzeko, ildo beretik, euskara lantzearen beharra azpimarratzen du Sarasuak:

“Hizkuntza ez da pare bat mila hitzekin nolabait bueltaka ibiltzeko, identitate baten izenean. Hizkuntza bizitzeko, gozatzeko eta espresatzeko da, bizitzako funtzio guztiak kalitatez betetzeko, bere dibertsifikazio osoan. Horretarako gaitasun handia aski dentsitatez lortu ezean, askorengan denbora kontua da likidoaren galera” (Sarasua 2013).

5. Euskarazko adierazkortasuna lantzeko barnetegi baten diseinua.

Hemendik aurrera, aipaturiko arazoei heltzeko ekarpena egin lezakeela uste dugun proposamen praktiko bat marraztuko dugu. Erregistro informalerako adierazkortasun linguistikoa indartzeko balioko lukeen barnetegi baten lan hipotesia garatzera goaz; hori marraztea izanen da kapitulu honen zeregina. Marrazte horretan, berariaz, kanpoan utziko ditugu arlo ekonomiko eta instituzionala. Barnetegia zein erakunde eta egitasmoren baitan garatuko litzatekeen ez dugu hemen garatu, bereziki arlo pedagogikoan zentratu nahi izan baitugu. Bestalde, lan hipotesi bat planteatzera goazenez, oso libreki aurkeztuko ditugu arlo pedagogikoaren inguruko posibilitateak eta zalantzak.

5.1. Zergatik Barnetegi bat?

Euskararen lagunarteko adierazkortasuna landu beharraren auzia agertu zaigunean, hurrengo galdera berez doa: nola landu? Hizkera informala formalki lantzeak ez duenez zentzurik, korpus bilketa zein arauk ez ligukete balioko. Esperimentatzeko leku informal batzuk sortzeko saiakera egin daiteke, eta ondoren, bertan landutako ereduak zabaldu. Norbanako hiztunari begirako proposamena egin nahi izan dugu, ez gizarte eragile bati begirakoa. Sarasuak (2013) dion bezala, “norbanakoaren jenio linguistikoa aldarrikatu behar

da orain arte baino gehiago. Eraikuntza. Bizitza osoko eraikuntza pertsonala da hizkuntzaren kalitatea.” Eraikuntza pertsonal horretarako tresna bezala proposatzen dugu barnetegia.

Ez litzateke helburua hizkera adierazkor eredu bat sortzea, definizioz kontraesankorra litzateke adierazkorra hizkera bizi, aberats eta anitzari baiteritzo. Bakoitzak bere hizkeraren adierazkortasuna lantzeko tresnak proposatzea litzateke xedea, aniztasuna izanik, oinarri, baliabide eta helburu. Aniztasuna informalaren ezaugarri izateaz gain, Euskal Herriko hizkeren ezaugarri ere bada. Euskal hiztun komunitatearen ingurune eta errealitateak anitzak dira, esamolde eta erreferentzia mundu eta modu desberdinak eskatzen ditu horrek. Bakoitzari balio diona helburu harturik, interesgarria litzateke aztertzea zergatik zerbaitek ez digun balio, zer diren baldintzak hiztun batek esateko modu bat bere egiteko ala berea ez sentitzeko.

Euskalduntze barnetegiak esperientzia baikor eta eraginkorrak izan dira. Urtez urte gero eta anitzagoak egiten dira, besteak beste, maila desberdinetako euskalduntze barnetegiak, azterketak prestatzeko barnetegi bereziak, zuberera ikasteko barnetegiak, hitanoa lantzekoak, barnetegi ibiltariak, familia barnetegiak, euskal girotze barnetegiak, bi egunekoak, astebetekoak, hilabetekoak... Hauetako hizkuntzaren lanketarako esperientzia baikorra jaso, pentsatu dugu barnetegia formatu egokia izan daitekeela hizkeraren adierazkortasuna lantzeko.

Galdera ugari etorri zaizkigu burura, zergatik parte hartuko luke jendeak barnetegian? Parte hartu nahiko luke? Zenbateraino da hizkeraren adierazkortasunarena kezka konpartitua? Norengan sumatzen da hori lantzeko nahia? Eta beharra? Zeintzuk formulatzen dute behar hori eta nola? Alde batetik, hizkuntzaren ikerlari edo militanteek euskararen egoerarekiko arranguraz dihardute gai honetaz, bestetik, hizkuntzaren ikerlari hauek egin azterketetan azaltzen diren gazte edo euskaldun berriek formulatzen dute batik bat behar hau, gazte batzuen kasuan naturaltasunez, besteetan frustrazioz.

Hasiera batean lehenengo barnetegia, esperientzia pilotu bat izatea pentsatu dugu. Nazioartean ere ez dugu aurkitu hizkera baten adierazkortasuna lantzea xede garaturiko esperientziarik. Esperimentatzea dagokigu orduan, balio lezakeen ikusteko.

5.2. Partaideak

5.2.1. Parte-hartzaileak

Parte hartzaile kopuruaren aldetik, 15-20 pertsonako taldea izatea hobetsiko genuke, ez gutxiegi, elkarrengandik aberastu eta hartu-emaneko giro bizi bat sortzeko. Kopuru handiegia ere ez litzateke komeniko, lehenesten baitugu partaideen artean harreman hurbil eta sendoak garatzea. Konfiantzazko giro aberats bat sortzea litzateke xedea, norbere hizkeraren esperimentaziorako.

Parte hartzaile profilari dagokionez, aukera ugariaren aurrean aurkitu gara. Hiztun profil konkretu bat hartzea zen aukera bat, adierazkortasunean hutsune gehien sumatzen dutenak esterako. Pentsa genezake horrela, emaitzak ikusgarriagoak liratekeela eta funtsean, ekarpena ere handiagoa, behar handiago batetik abiatuko baikinake. Gazteentzako bideratutako barnetegi bat diseinatzea litzateke beste aukera posible bat, gazte hizkera sortzea xede. Baina, anitz gogoetatu ondotik, adierazkortasun hutsune linguistiko gehien sumatzen dituztenak, euskaldun berriak zein gazteak hartu eta horietako pertsona konkretu batzuekin (barnetegian parte hartuko luketenak) lanketa egin baino, bi hiztun profil horietan modu orokortuan eragin nahi bada (hori da errealki ikusten den beharra), gizarte ereduak sortu eta adierazkortasunaren lanketarako gizarte giro orokor bat garatu behar dela uste dugu. Horretarako tresna moduan proposatu nahi dugu barnetegia.

Horrez gain, erregistro informalerako adierazkortasun baliabide falta euskal hiztun komunitate osoaren arazoa denez, lanketa hiztun profil konkretu batzuegan fokalizatu beharrean, barnetegia euskal hiztun ororen lanketarako tresna moduan planteatu beharko genukeela iruditu zaigu. Lanketa modu orokor bat proposatuko dugu orduan, lan hipotesi honetan, eginen litzatekeen lehen barnetegi esperimentuari begira, baldintza aproposenak bilatuz. Ondoren lanketa orokortua eta eraginkorra izan dadin, barnetegia xede talde desberdinetara egokitu beharko litzateke eta lanketa giroa gizarteratu.

Barnetegiaren lehen esperientzia piloturako hiztun profil desberdinak batzea pentsatu dugu. Eredu metodologikoa sortu eta beratu edukiz aberasten joateko, tipologia linguistiko

desberdinetako hiztunak beharko ditugulako elkar elikatuz joan daitezten; batzuk ondare tradizionaletik eta euskalkietatik ekarpen gehiago egin ahal izanen dituzte, eta besteek aldiz sortzaileago izan beharko dute. Elkar aberastuko lukete, elkar kutsatu (kutsatu hitza era positiboan erabiliko dugu lan honetan) eta elkarrekiko jardunean nahasketa interesgarriak sor litezke. Emaitzak ere anitz eta aberatsagoak izanen liratekeela pentsa genezake. Hiztun profil bakoitzean izanen genuke aztergai zer sentipen dituen, nolako adierazkortasuna garatu den, zein esamolde hartu dituen bakoitzak, zein ez, zer erraztasunekin...

Baloratu dugun irizpide garrantzitsuena benetako kezka eta nahi batetik datozen parte-hartzaileak izatea izan da. Hizkera erdarekin kutsatzea, inkontzienteki, nahigabe egiten dugu, euskarazko adierazkortasuna aldiz, kontzienteki landu beharko dugu. Asko erabaki kontzienteak izanen dira (hitanoa erabiltzea, euskarazko esamolde hau erabiltzea erdarazko beste horren partez...). Horregatik ukanen du berebiziko garrantzia partaideen kontzientziak.

Bestalde, hizkerarekin jende ausarta, jostaria, esperimintatzea gustatzen zaiona ekartzea komeniko litzateke. Esperimintatzeko gogotsu dagoen jendea, erronkarekin motibatuko dena. Horrekin batera, harremanetarako erraztasuna daukan jendea izan beharko da, elkarrekiko harremanean landuko baitugu hizkera.

Beste irizpide garrantzitsu bat partaideen artean afinitatea sortzea izanen da. Konfiantza, konplizitate, hurbiltasun eta laguntasun giroa sortzeak berebiziko garrantzia du, esperientzia ahal bezain baikorra izatea bermatuko bailuke horrek. Esperientziarik baikorrena litzateke eraginkorrena. Lanketa eta garaturiko mintzamoldea pertsona eta talde giro bikain bati lotuta badatorkigu, aukera gehiago du guretzat garrantzitsua izan eta irauteko. Hizkuntzekin frogatua izan den gisan, hizkerekin ere, faktore emozional eta afektiboek paper garrantzitsua jokatzen dute.

Barnetegirako ideala parte hartzaileak gerora lagunak izanen liratekeen pertsonak izatea da. Gero hizkera hori erabiltzen eta are adierazkorrago egiten segitzeko gisan. Elkarrekin modu adierazkorrean mintzatzeko usaia hartua lukete, ingurukoak kutsatzeko baldintza idealak sortuko lirateke beraz. Bakarrik aise zailagoa da ausartzea, ez du norbere mintzaira beste batekin berrelikatze aukerarik ematen eta besteei kutsatzea zailagoa da. Aldiz, talde oso batek horrelako mintzatzeko manera baldin badu, askoz erakargarriagoa da

eta kanpotik datorren pertsona bat talde horretan integratzekotan, horrela mintzatzera bultzatua litzateke.

Agian partaideak binaka etortzea baikorra litzateke. Alde batetik, bi adiskideren artean hitz egiten den lagunarteko mintzamoldea jasoko bailitzateke horrela (Nik ene iparraldeko lagun batekin erabiliko nituzkeen esamoldeak seguraski ez litzaizkidake aterako beste hizkeretako pertsona ezezagunekin). Bestetik, adierazkortasunaren lanketa biek elkarrekin eginez gero, gerora elkarrekin elikatzen jarraituko lukete. Jatorri bereko hiru edo lau egonen balira agian pisu gehiegi hartuko luke horien hizkerak jatorri soziolinguistiko ugari taldean.

Azkenik, genero aldetik neska kopuru esanguratsua egon beharko litzateke, hitanoa erabiltzerakoan, noka (gizartean zabalpen apalagoa daukana) erabiltzen trebatzeko.

Lehen esperimientua denez, garrantzitsua izanen da ahal bezain partaide idealak atzematea. Gerora, barnetegiaren funtzionamendua finduko litzateke, funtzionatu duena eta ez duena kontuan hartuz... baldintza hobeak egonen lirateke. Behin proposamena proban jarri eta esperientziatik proposamen pedagogikoa finduta, lehen azaldu bezala, barnetegia euskal hiztun oren lanketarako tresna moduan planteatzeko, lanketa xede talde desberdinetara egokitu beharko da: Hedabideetan dabilzantzat proposaturiko barnetegia jatorri soziolinguistiko desberdinentzat balioko lukeen hizkera landu eta gizarte ereduak sortzera bideratua litzateke. Hezitzaileentzat prestatu barnetegiak hezitzaileak umeentzat erreferentzia linguistiko izateko prestatu eta umeekin lanketa eramateko baliabideak garatu beharko lituzke. Gazte hizkera garatzeko barnetegiak gazteen gogo eta behar espezifikoa izanen lituzke abiapuntu. Bestalde, hizkeraren adierazkortasuna indartzeko barnetegiak, eskualdeka, euskalkika eta lagun talde naturaletan egitea oso eraginkorra litzatekeela iruditzen zaigu, jatorri linguistiko ugarietatik eta ugarietarako baino, oinarri eta iturri linguistiko bateratu eta hurbilagoan lan egiteko aukera emanen bailuke horrek.

5.2.2. Gonbidatuak

Hizkera adierazkorraren lanketan eredu liratekeen pertsona batzuk gonbidatzea aberasgarria litzateke, egun bana pasatzera. Gutxiago ez, pertsona horrek aportatzeko duenaz gozatzeko eta ahal den heinean barneratzeko denbora behar baita.

Gonbidatuak pertsona sortzaileak eta hizkuntza landu dutenak lirateke edota horretan saiatzen direnak, barnetegiko partaideengan inbidia, saiatzeko gogoia edota motibazioa sortuko duten erreferenteak, bide erakusleak, posible dela transmitituko dietenak. Horien artean, euskaraz oraindik erabiltzen ez ziren hitzak telebistara ekarri dituen kazetariren bat, gazteen hizkera ikertu duen norbait, umorea euskaraz egin duen baten bat, hizkuntzarekin jolasten duen pertsona bat. Jendaurrean hitz egiten trebatu den jendea, adierazkortasuna bilatu duena, harritzeko, barre eragiteko, modu energikoan protestatzeko edota barne gogoeta egiteko hizkera adierazkorra landu duena gonbidatuko dugu. Azkenik, euskalduntzea lortu duen euskaldun berri baten esperientzia interesgarria litzateke, euskalduntze bide horretan edukitako esperientziak, lotsak, sentipenak eta gainditu nahiak konta diezazkigun.

Baditugu izen batzuk buruan, eta hasieran lan hipotesia izenekin egin badugu ere, azkenean txosten honetarako kentzea erabaki dugu. Egokiagoa iruditu zaigu horien ezaugarrietan eta hizkera adierazkortzeko lanketan egingen diguten ekarpenean zentratzea. Gonbidatuei alde zurretik azalduko zaizkie eguneko helburuak eta beraiekin landuko da zer ekarpen jaso nahiko genukeen eurengandik. Hala ere, gonbidatuaren aurkezpena bere esku geratuko da, gonbidatuak berak, nahieran aurkeztuko du bere burua eta interesgarria deritzona transmitituko die barnetegikideei ordu betean. Barnetegiko partaideek galderak egin ahal izanen dizkiote, hala nahi izanez gero.

5.2.3. Biltzailea

Pertsona bat egon beharko litzateke, partaideen baimenarekin, guztia grabatzen, kamara batekin, hizkeraz gain, irudiak egoera bisualizatzeko aukera ematen baitu. Eginkizun hau rotatiboa izan daiteke. Horrez gain, pertsona honek apunteak hartu beharko lituzke, zerbait interesgarria iruditzen zaion uneoro idatzita jasoz. Kanpo begiratu bat litzateke, etengabe gertatzen diren gauza esanguratsu guztien jasotzaile. Egun bukaerako balorazio unean, egoki ikusten duena plazara lezake, ohar batzuk egin... Egunean zehar grabaturiko

bideo zatiak jar litezke ikusgai, denak lekuko izan ez diren egoera adierazkor bat erakusteko edo hizkeraren baliabide falta antzematzen den egoerak antzeman eta modu adierazkorrago batean erreproduzitzeari ekiteko. Horrez gain, apunte eta ikus-entzunezko material hau oinarri sendoa izanen da barnetegiaren ondorengo balorazio eta hizkuntza adierazkorraren lanketarekin jarraitzeko.

5.2.4. Talde eragilea

Garrantzitsua litzateke barnetegi hau pertsona talde batek hartzea bere gain. Bai prestakuntza, bai barnetegi garaiko kudeaketa baita nolabaiteko gidaritza lana ere, baina bereziki ondotik bilduriko materiala eta sorturikoa landu eta segipena emateko. Pertsona bakarrarentzat lan zail eta pisutsua izan liteke. Horrez gain, ez litzateke adibidez hiru pertsonako multzo batek eginikoa bezain aberats eta eraginkorra izanen. Ikuspegi anitzeko lantaldea beharko da, antolaketaz arduratuko dena, material bilketaz arduratuko dena, taldearen dinamizazioa hartuko duena bere gain eguneko lanketetan, gogoetarako gidaria, didaktikaz dakiena, gogoeta linguistikoan jantzia dagoena, sormen teknikak ezagutzen dituen...

Pertsona konpetente, motibatu eta harremanetan iaioak lirateke langintza horretarako egokiak, besteen beharrak ikusteko gai direnak, bizipenak kudeatzen jakinen dutenak. Barnetegiko premiei aurre egiteko dinamizatzaile egokiak izan beharko dute, inizatibadunak, taldeari tira eginen diotenak, esapideak proposatu eta xaxatzeko ausardia ukanen dutenak. Bestalde, diziplina eta konpromezudun pertsonak izan beharko dira, nola ez, ardurak hartu eta beteko dituztenak. Langintza hau eraginkorra izan dadin gogo eta denboraren dedikazioa eskatuko du, baita luzera begirako engaiamendua ere, edo behintzat, egin den esperientziaren transmisio egokia egitea eta errelebo bilaketa. Talde eragileko partaideek ezaugarri guzti hauek ukaitea komeni bada ere, talde irekia litzateke, edonor taldera gehitzeko moduan.

Talde honek langintza honetan sartuko duen ordu kopurua zehaztea zaila egiten bazaigu ere, prestakuntzari dagokionez, urtebete lehenago proiektua zer instituzio edo elkarterekin aurrera eramanez den pentsatu eta elkarlana abiatu beharko dela aurreikusten

dugu. Ondoren, diru laguntzen eskaria osatu, kontaktuak egin, saioak antolatu, ikasmateriala prestatu, lekua aukeratu eta jendea bilatzeari ekin beharko zaio.

Barnetegi garaian, pertsona hauek, aurretik taldeak egoki iritzitakoaren arabera, ardurak banaturik parte hartuko dute. Dinamika batzuetan beste partaideen gisara, besteetan, dinamizatzaile zein behatzaile rolak hartuz. Garrantzitsua izanen da, gauero, talde handiko balorazioaren ondotik, talde eragileak ere bere balorazioa egin dezan, jarritako helburu orokorrak eta egunez egunekoak betetzen ari diren neurtu, zer hobetu pentsatu eta hurrengo egunekoa guztiz lotuta edukitze aldera.

Barnetegi ondoren, talde honen gain geratuko da, jasotako esperientziari jarraipena eman eta ondorioak transmititzea, erregistro informaleko adierazkortasunaren lanketan ekarpena modurik eraginkorrean egiteko moduan.

5.3. Lekua eta iraupena

Barnetegia hizkeraz aberatsa den ingurugiro batean egitea litzateke egokiena, partaideak denbora libreetan hizkera adierazkor baten ingurunean murgil daitezela. Hala ere, hau ez zaigu hain erabakigarria iruditzen, barnetegiak egiteko azpiegitura egokia duen lekua izatea da baldintza nagusia.

Garaiak ez du inporta, jendea libre izatea litzateke baldintza. 10-15 bat egunekoa iraupena izatea pentsatu dugu; ez laburragoa, hizkera ohitura batzuk barneratzeko denbora behar baita, baita partaideen arteko konfiantza eta lagun giro, ahal dela iraunkortasuna ukanen duena, sortzeko ere. Egun gehiagora luzatzea aldiz, pisutsua izan liteke, eta partaideen presentzia bermatzea zaila.

5.4. Ereduak eta edukiak

Edukien mamia, 4.5. atalean dagoen tauletan eta egunez eguneko plangintzan hobeki ikusiko da, baina aurretik, kontsiderazio orokor batzuk eginen ditugu edukien ardatzei edo nolakotasunei buruz.

Barnetegian, euskara adierazkorraren lanketarako hiztun eredu edo erreferente desberdinak izanen dira. Alde batetik, partaide profil desberdinak egotea aukeratu dugunez, eta hizkerarekiko kezka edukitzeaz gain, hizkerarekin jolastea eta esperimentatzea gustatzen zaion jendea aurreikusten dugunez, barnetegikideak elkarren eredu izateko aukera legoke, bata bestearen hizkeraz kutsatzekoa. Beste aldetik, lehentxeago aipatu dugun gisan, « eredu » edo « kutsatzaile » izan daitezken hizkera adierazkorra darabilten gonbidatu desberdinak etorriko dira. Horrez gain, ingurugiro desberdinetara egin daitezkeen txangoek bertako hiztunen hizkera adierazkorretara murgiltzea ahalbidetuko lukete, bertatik aberastu eta bertakoekin elkartrukean hizkeraz esperimentatzeko aukera eman ere bai.

Edukiei dagokienez, alde batetik, hitanoa landuko da, lagunarteko hizkera adierazkortzeko baliabide garrantzitsua baita, bestetik, euskalki eta hizkera desberdinetako baliabideak jorratuko dira. Ondare tradizionalako lekukotasunak hartuko ditugu eredutzat: bertsoak, kantuak, poemak, esaera zaharrak eta *ahotsak.euseko* bideoak. Gazteen gogo eta behar linguistiko espezifikoak landu ondotik, gaur egun gazteek dauzkaten hizkera adierazkor ereduak aztertuko dira, *Goenkale*, *Goazen!* eta *Gu ta gutarrak* telebista programetako zatiak edota Euskadi Gazteako irratsaioak hartuz. Haur hizkeraren berezitasunak ere izanen dira aztergai eta horretan xuketa tratamentuan jarduten ikasiko da. Umorerako errekurtsoak aztertuko dira bestalde eta umorezko antzerki bat ikusi. Sortzailetasuna ere izanen da langai garrantzitsu eta rapa landuko dugu gertuagotik.

Korpusaren aldetik, *Gazte gara gazte* hiztegitik harturiko unitate desberdinetako hiztegia edukiko dugu lanketarako euskarriztat, honela sailkatuta: Amodioa eta sexua, Haserrearen adierazleak, Irainak eta gaizki esateak edo adjektibo ezkorak, Pozaren adierazleak edo positiboak izan daitezkeenak, Ezaugarri fisikoekin lotutakoak, Parranda, alkohola, drogak, taberna giroa eta Bestelakoak.

Beste baliabide interesgarri ugari ere bazeuden, esaterako, Koldo Izagirreraren *Euskal lokuzioak*, sarean webgune moduan ikusgai dagoen *Hizkera Adierazkorra* Luisma Gullón

Urmeneta eta Juan Mari Juaristi Balenciagaren 2008-2009ko, « Euskal Kulturgintzaren transmisioa » aditu-titulua amaierako lana, Intza proiektuaren baitan, Joxan Elozegi eta Josu Landarekin webgune moduan plazaratu dutena, baita besteak beste Asisko Urmenetaren *Mantxut* izenburupean eginiko lanak ere.

Hala ere, guri, bai formatu eta bai eduki aldetik lagunarteko hizkera adierazkorra lantzeko euskarri egokiena Gazte gara Gazte webguneko Gazte Hiztegia iruditu zaigu. Hitz bat gaur egunean baliagarri egiteko bi baldintza nagusi bete behar ditu, batetik, laburra izan behar da, honela dio Zuazok (2002): “Munduko gazte hizkerak badauka ezaugarri bat, laburtzeko joera daukala. Orduan etorriko zaizu hizkuntzalari bat eta motxila esateko «bizkar zorroa» jarriko dizu hiztegian, eta hitz horrek ez du sekula arrakastarik izanen luzeegia delako”, bestetik, gardentasuna: “Sortzen ditugun hitz berriak eta espresioak gardenak izan behar dira. “Kanpaia jotzea” gaur egun ez da gardena, gaur egun kanpaia jotzen ez dugulako” (Zuazo 2002). Amonarrizek (2002) honela gaineratzen du: “Irudi berriak sortzeko erreferentzia berriak eta modernoak behar ditugu.” Gazte gara hiztegiko hitz eta esamoldeak, gaur egungo erreferentziadunak, laburrak eta gardenak iruditu zaizkigu, gaur egungo lagunarteko hizkeran erabilgarriak.

Izan ere, hiztegi honek gaur egungo ahozko iturriak dauzka oinarri, gazteei eginiko elkarrizketa eta inkestetan baturiko hitzak biltzen ditu (60 inkestatik gora bildu dituzte alor desberdinak zehaztu eta gazteei euren lagunartean erabiltzen dituzten formak adierazteko eskatuz) *Berbeta berua* liburuko hiztegia (A. Telleria, Badihardugu Elkarte 2003) eta beste hainbat argitalpenetatik jasotako berba eta esamoldeekin batera.

Korpusa azpi gaika antolatu dugu, landu eta barneratzeke garaian, ordena alfabetikoan egon baino esanahiaren arabera sailkatuta egotea praktikoagoa iruditu baitzaigu. Hitz adierazkorrak jarri ditugu lehenengo, adiera bera zutenak elkarrekin, eta ondoren horien esanahia, hizkera arruntean. Batzuetan ulermena errazteko, erdarazko esapideak jarri ditugu, ulermenerako lagungarriak iruditu zaizkigunean soilik. Frantsesezko esapideak gehitu ditugu gaztelerazkoen ondoan, ez baitzaigu egokia iruditu Hego Euskal Herriko hiztunek bai baina Ipar Euskal Herrikoek ulertuko ez dituzten espresioak soilik ematea. Horrez gain, “Gazte

Hiztegian” agertzen ez ziren Iparraldeko hitz eta esapide zenbait gehitu dizkiogu korpusari (beltzez eta letra etzanetan jarri ditugu).¹

Azkenik, hizkera adierazkortzeko baliabideak landu, sortu eta erabiltzeaz gain, barnetegiko ildo nagusienetako bat alde emozionalaren lanketa izanen da. Izan ere, hizkuntza portaeretan izugarri eragiten duen alderdia da hau. Hitztunek dituzten aurreiritziek, epaiek zein konfiantza linguistikoak eragin nabarmena dute egiten ditugun hizkuntza edo hizkera hautuetan. Dugun mintzatzeko manera hertsiki lotua da modu horretan hitz eginez sentitzen dugun legitimitateari. Talde eragina, babesa, kide sentsazioa, modu batean zein bestean hitz eginda zer transmititzen dugun, zer irudi ematen dugun gutaz, erran duguna nahi izan dugun bezala erran dugun, nola sentitu garen esapide berriak erabiltzean... elkarbanatu eta landuko ditugu konfiantza linguistikoa eta ausardia indartze aldera. Talde eragileak gaueroko balorazioan, arreta berezia jarriko du horretan, eta behar den aldiro sortuko dira alde emozionalaren lanketarako espazioak.

¹ Korpus honen unitate bat jarri dugu eranskinetan, 61.orrialdean, proposatutako formatua ikusteko. Hiztegi guztia jartzea, luzeegia zatekeen.

5.5. Barnetegiko plangintza zehatza

EGUNA LANGAI	1. BEHAKETA	2. HITANOA	3. AUSARDIA	4. ARBASOENGANDIK
Eguneko helburua	Hizkeraren nolakotasuna behatzea. Erronkak identifikatzea, espektatibak bateratu eta metodoa adostea. Konfiantza giro polita sortzea	Hitanoa barneratzea eta erabiltzen hastea	Norbere konfiantza eta ausardia linguistikoa landu eta indartzea	Hizkera adierazkordun batekiko inbidia sentitzea. Ondare tradizioaletik balio diguten adierazkortasun baliabideak jasotzea
Gonbidatua	Behaketarako balio duen pertsona bat	Hitanoa ikasi eta praktikatzea hautatu duen pertsona bat	Euskaldun berri bat	Ulegarri baina aberats, ez euskalki itxi batekoa baina adierazten ona eta esamolde ugari darabilzkien adineko bat
GOSARIA 9:00-10:00				
Esnatze jolasa 10:30-11:00				
Teoria 11:00-12:00	11:00-11:30 Iritsiera 11:30-12:30 Barnetegian sartzeko dinamikak	11:00-12:00 Gonbidatuaren aurkezpena 12:30-13:00 Hitanoaren teoria, euskalki desberdinetan, entzun	11:00-13:00 Gonbidatuaren aurkezpena	11:00-12:00 Gonbidatuaren herrira txangoa

Ekintza 13:00-14:00	Konfiantza jolasak	Binaka konfiantzan, eztabaida interesgarriak hika	Pozaren adierazleak landu	Gonbidatuaren aurkezpena, kontakizunak
BAZKARIA 14:00-15:00				
Gogoeta 15:30-16:30	Euskararekiko bizipenak elkarbanatu	Hitanoaz	Euskaldun berriez	Transmisio etenaz
Ekintza 17:00-20:00	17:00-18:30 Barnetegiaren helburuak eta antolaketa. 18:30-20:00 Talde txikitan adierazkortasuna definitzen. Modu adierazkor eta sortzailean azaldu besteen aitzinean.	17:00-18:30 Binaka “Bestelakoak” hiztegia landu. 18:30-20:00 Binakako antzerkitxoak prestatu hika eta esamolde horiek erabiliz.	17:00-20:00 Clown ikastaroa	17:00-19:00 Pertsona adierazkorrekin eta esaera zaharrekin Ginkana herrian zehar. 19:00-20:00 Etxera bueltan, esaera zahar berriak asmatzen.
AFARIA 20:30-21:30				
Gaubela 22:00-23:00	Telepathy jolasa	Antzerkiak ikusi	Kutxa jolasa	Aiton amonekin bizitako kontakizunak, beraien hizkera imitatuz
Balorazioa 23:00-00:00			Baloratu ahal den heinean, ikasitako pozaren adierazleak erabiliz	

EGUNA LANGAI	5. UMOREA	6. LIGATZEA	7. IRAINTZEA	8. GAZTE HIZKERA
Eguneko helburua:	Euskarazko umorea egiteko gabeziak identifikatzea. Umorerako errekurtsoak lantzea. Norbere umore baliabideak proban jarri eta garatzea	Amodioa eta sexuaren inguruko hiztegia landu eta erabiltzen trebatzea. Barnetegi erdian piropo bidez lanketarako motibazioa indartzea	Euskarazko irainak barneratzea. Jolas lehiakorren bidez, norbere irainak proban jarri eta talde giro itzela sortzea	Gazte hizkeraz hausnartzea, gaur egun gazteek dauzkaten ereduez eta eredu horiek nola hobetu daitezkeen. Gazte erreferentziadun hizkera adierazkorra esperimentatzea.
Gonbidatua	Umorea ikertu eta landu duen pertsona bat	Arrakasta izan duen euskarazko telesail bateko aktore bat	Irainak landu dituen norbait	Entzule gazteei zuzenduriko irratsaio bateko esatari bat
GOSARIA 9:00-10:00				
Esnatze jolasa 10:30-11:00		Egunean zehar piropoak idatzi		Egunean zehar watxapak idatzi
Teoria 11:00-13:00	11:00-12:00 Gonbidatuaren aurkezpena 12:00-13:00 Umorea egiteko errekurtsoak landu	11:00-12:00 Gonbidatuaren aurkezpena 12:00-13:00 Maite kantak, olerkiak eta esaera zaharrak landu	11:00-12:00 Gonbidatuaren aurkezpena 12:00-13:00 Irainen hiztegia landu	11:00-12:00 Gonbidatuaren aurkezpena 12:00-13:00 Parrandako hiztegia landu

Ekintza 13:00-14:00	13:00-14:00 Ezaugarri fisikoen hiztegia landu, deskribapen umoretsuekin	13:00-14:00 Talde txikitan, maitasun eszena baten doblaje jostaria	13:00-14:00 Egoera batzuk eman eta antzerki inprobisatuak	13:00-14:00 Rol playing, taberna giroko elkarrizketak antzeztu
BAZKARIA 14:00-15:00				
Gogoeta 15:30-16:30	Euskarazko umoreaz	Euskaraz ligatzeaz	Emozioak erdaraz adierazteaz	Gazte hizkeraz
Ekintza 17:00-20:00	17:00-18:30 Umorezko antzerki bat ikusi 19:00-20:00 Antzerkian, adierazkortasuna nola bilatzen da, antzerkilariekin gogoeta horien lanketaz.	17:00-18:00 Sexu hiztegia landu 19:00-20:00 Berbeta beruako marrazkien burbuilak bete, komikia jarraitu	17:00-19:00 Errezeta zail bat elaboratu, pilota partidu bat jokatu hertsapen batekin 19:00-20:00 Elkar iraintzen diharduten telebista edo irrati programak entzun eta euskaratu edo hobetu	17:00-19:00 Hiru taldetan: -Euskadi Gazteako irratsaio bat grabatu -Goazeneko gidoi bat idatzi -Gu ta gutarraken antzeko telebista programa bat prestatu gaubelarako 19:00-20:00 Irratsaioa eta gidoia gainontzekoei aurkeztu
AFARIA 20:30-21:30				
Gaubela 22:00-23:00	Txiskola! Txiste lehiaketa. Txiskolako irabazlearen saria eta Eguneko graziosoaren saria banatu	Piropoposta irakurri, gitarra fondoan	Jolasa	Gazteentzako telebistako programa
Balorazioa 23:00-00:30				

EGUNA LANGAI	9. EUSKALKIAK, HAUR HIZKERA	10. SORTZAILE	11. BALORAZIOA
Eguneko helburua	Euskalki desberdinak gure ahotik esperimintatzea. Euskalkiak vs Batua aurreiritziez hausnartzea. Haur hizkera lantzea	Adierazkortasunaren lanketan ari direnen esperientzia jasotzea. Hizkeraren sortzailetasuna garatzea	Adierazkortasun linguistikoaren lanketan barnetegian bizitako esperientzia baloratzea.
Gonbidatua	Euskalki desberdinak ikasi eta darabilzkien norbait. Haur hizkera ere landu duena.	Pare bat raplari/bertsolari	
GOSARIA 9:00-10:00			
Esnatze jolasa 10:30-11:00			
Teoria 11:00-13:00	11:00-12:00 Gonbidatuaren aurkezpena 12:00-13:00 Euskalki bakoitzeko ezaugarri adierazkorrak landu. Tonua, fonetika, hitzak, esamoldeak	11:00-12:00 Gonbidatuaren aurkezpena 12:00-13:00 Rapean eta bertsotan adierazkortasuna lortzeko erabiltzen dituzten teknikak, nola lantzen duten hizkuntza eta erreferentzia mundu berri bat.	11:00-12:30 Balorazio orokorra Barnetegiko esperientziaren bizipenak jaso, aurrerapenak, hobetzekoak...

Euskal hiztunen erregistro informaleko adierazkortasuna

landu eta indartzeko barnetegi baten diseinua

Ekintza 13:00-14:00	13:00-14:00 Antzerki bera euskalki desberdinetan	13:00-14:00 Free Style	12:30-14:00 Etorkizunera begira adierazkortasunaren lanketarako jarraibideak zehaztu
BAZKARIA 14:00-15:00	Bakoitzak berea ez den euskalki batean		
Gogoeta 15:30-16:30	Euskalkiez. Irakurri batuan mintzo direnen lekukotasunak	Nola sustatu euskal hiztun komunitatean, adierazkortasun lanketa eta sorkuntza giroa?	Galtxagorrien epaiketa eta galtzaileen prenda.
Ekintza 17:00-20:00	17:00-18:00 Xuketa, haur hizkera landu 18:00-19:00 Ahotsak.eus eko adineko hiztunen bideoak ikusi 19:00-20:00 Bi xaharren paperean egunkariko berriak komentatu	17:00-18:00 Haserrea adierazteko hiztegiaren lanketa 18:00-19:00 Banaka edo taldeka, bakoitzak nahi duen eran, haserretik rap bat idatzi 19:00-20:30 Barnetegiaren parodia prestatu	
AFARIA 20:30-21:30			
Gaubela 22:00-23:00	Ipuinak kontatzen	Bukaerako antzezlan adierazkorra	
Balorazioa 23:00-00:30			

5.5.1. Gogoeta espazioak

Euskara adierazkorraren inguruko gogoeta espazioak sortzea pentsatu dugu. Partaideak hizkera adierazkorrarekiko kezka horrek bultzaturik etorri direnez, suposa genezake, problematika hau buruan darabiltela. Hau kontuan harturik, oso interesgarria litzateke, gai hauetaz hausnartzeko guneak sortzea barnetegian zehar. Horrez gain, problematikez hausnartu eta kezkak eta erronkei heltzeko ideiak elkarbanatu eta kolektibo egiteak hauei heltzeko motibazioa elikatzen du norberarengan. Horrela, gogoeta espazioak, alde batetik, barnetegiko partaideek berain adierazkortasun linguistikoaren lanketarako motibazioa indartzeko baliagarri lirateke, bestetik, euskal hiztun komunitateak erregistro informaleko adierazkortasunean dituen erronkak zedarritu eta aurrera eramateko moduak marrazteko espazio baliotsua lirateke. Gisa honetan, barnetegi hau praktikoki eta teorikoki euskararen adierazkortasuna lantzeko abiapuntu izan liteke.

Egunero horrelako espazio bat sortuko dugu bazkalondoren. Une egokia iruditu zaigu, oraindik digestioa egiteko unean, ekintza mugiturik egiteko eskatu ezin eta hizketa egiteko ohitura baitauek. Mahai inguruko elkarrizketak luzatu beharrean, interesatzen zaizkigun hizketa gai batzuk proposatu eta horietaz hizketan jarduteko aukera emanen digu. Gogoeta hauek egiteko formatu desberdinak proba genitzake. Gogoetagaia plazaratu ondotik, bakoitzari minutu batzuk utz diezazkiokegu, bakarka hausnartu eta ideiak idazteko. Talde handian egin litezke gogoetak, errondan, lehen egunean norbere euskararekiko bizipenak elkarbanatzeko formatu egokia izan liteke hau, bakoitzak berea kontatu eta denek denena entzutea komeni baita. Printzipioz ez litzateke eztabaidarik egongo, banakako kontaktak baizik. Ondoko egunetako eztabaidetarako aldiz, molde desberdinak egon litezke, talde handian egiten bada, pilota bat erabil liteke, hitza hartu nahi duenak eskatu edota gutxi hitz egin duenari bota dakiokiena hitz egin dezan. Gisa horretan, gogoetan parte hartze orekatuagoa bermatuko litzateke. Bestela, talde txikitan egin litezke gogoetak, hau izanen da seguraski egokiena eta gehien erabiliko den formatua. Bakoitzari gehiago hitz egiteko aukera ematen dio, eta horrez gain, gogoetatutako material bikoitza izanen luke idazkari lanetan dabilenak. Bukaeran ez da talde handiko partekatzerik eginen, denbora eskasez, eta dena idatzirik gordeko denez, nahi duenak egon ez den taldean izaniko eztabaida eskuragarri

ukanen luke. Beste formatu batzuk ere egon litezke, dena-den partaideek erabakiko dute egunean egun, egokiena iruditzen zaien eginmoldea.

5.5.2. Liburuxka

Partaide bakoitzari lehen egunean, liburuxka bat emanen zaio. Barnetegi osoan zehar, uneoro aldean eramanen duena, interesgarria iruditzen zaion edozer apuntatzeko. Liburuxkak atal desberdinak ukanen ditu. Lehenengoa, hizkera adierazkorraren atala izanen da. Bertan, partaide bakoitzak, egunean zehar ikasitako hitz, esamolde, esaera zahar edota hizketarako arau edo trukoak idazteko lekua ukanen du. Horrez gain, atal honetan agertuko dira, egunez egun landuko ditugun unitate desberdinak, hiztegi espeziotikoarekin: “Ezaugarri fisikoak”, “Trainak eta gaizki esateak edo adjektibo ezkorrak”, “Haserrearen adierazleak”, “Pozaren adierazleak”, “Parranda, alkohola, drogak, taberna giroa”, “Amodioa eta sexua”, “Bestelakoak”, “Euskalki desberdinak”, “Haur hizkera” eta “Esaera zaharrak”. Hauetako atal bakoitzean, norberak asmatutako edo taldean sortutako esamoldeak idazteko txoko garrantzitsua egonen da, adierazkortasunaren sortzailetasuna bultzatu asmoz. Garrantzitsua izanen da, lehenengo atal honetan jasorikoa, behin eta berriz irakurtzen joatea, gogoratu, barneratu eta erabiltzeko moduan.

Liburuxkako bigarren atala, gogoetei dagokiena, egunean zehar izandako hausnarketak idazteko txokoa izanen da. Barnetegikideek eguneroko bazkalondoko gogoeta espazioetan adierazkortasunaren inguruan edukitako hausnarketa eta ideiak apuntatu ahal izanen dira bertan. Barnetegiko lehen eguneko asanbladaren lehen puntuari dagokion orria ere egonen da, zergatik eta zertarako etorri garen barnetegira azaltzeko bideratua. Ondorengo orrialdeak, erran bezala, txuri, nahi izanez gero, hizkeraren adierazkortasunaren inguruan izandako gogoetak idazteko.

Hirugarren eta azken atala, balorazio atala izanen da. Gaueroko balorazioa egiteko galdera sortak egonen dira, alboan erantzuteko espazioarekin, baita barnetegi bukaerako eta hortik aste batzuetara egin beharreko baloraziorako gida lerroak ere. Azkenengo orrietan, barnetegiko 11 egunen taula egonen da, hutsik, bezperan hurrengo eguneko egunez egun betetzeko gisan.

Azken orrian gisa honetako aipu motibagarriren bat jar liteke:

“Hizkuntzaren koloreak asko dira. Pertsona batzuk estilo errepikaezina dute, familia askok badituzte beren hizkera propioak, barietate lokal eta eskualdekoek usain berezkoa dute, hizkera berezitu bakoitzak bere corpusa du. Amaierabako itsasoan murgiltzea da euskararen baliabideen jabekuntzan jolas egitea” (Sarasua 2013).

“Jolasa da euskara totalagoa ikastea, bizitza osoko jolasa. Jolas-une horietako bakoitza, inbertsioa da. Jabekuntza horietako bakoitza, aurretik esan ezin zenuen doinutxo bat da, leihatila-zirrikitu berria espresioaren paisaia. Hitz edo esamolde bakoitza, bizitzeko abantaila nimiño bat da. Horretarako da hizkuntza” (Sarasua 2013).

Egunean zehar idazteko eta gauean, nahi izanez gero, elkarbanatzeko tarte hartzeak bizi eta ikasitakoa gehiago barneratzea ahalbidetuko du. Horrez gain, egun bukaerako balorazioa aberatsagoa eta barnetegiko esperientzia baikor eta sendoagoa izanen da.

5.5.3. Eguneko balorazioa

Gauero egunaren balorazio bat egitea beharrezkoa iruditzen zaigu. Gauean egitearen arrazoiak, alde batetik, sentrazioak partekatu eta bizipen zailak baleude, konponbidea bilatzea da eguna amaitu aitzin, egunean zehar bizitako esperientzia baikorra eta ikasirikoa barneratu eta elkarbanaturikoarekin lotartzeko gisan. Bestetik, hurrengo goizean, egun berri bat hasteko aukera ematen du.

Helburuak	Estrategia	Baliabideak	Balorazioaren erabilera posibleak
Norbere hizkeraren adierazkortasunaren lanketa baloratzea. Eguneko helburuak bete diren baloratzea.	Bakarka, idatziz, bakoitzak bere liburuxkan. (30/40 min)	Hiztegi berriaren asimilazioari buruzko galderak : Zer hitz, zer esamolde ikasi ditut gaur? Zeintzuk gelditu zaizkit? Zergatik? Zein erabili ditut? Zergatik?	Zergatik motako galdera hauek esamolde bat apropiatzeko baldintzak identifikatzera bideratzen dute. Esamolde bat apropiatzearen zergaitiak eta erabiltzerakoan ditugun

<p>Euskararen adierazkortasunaren inguruko gogoetak elikatzea.</p> <p>Bakoitzaren ongi izatea eta elkarbizitza bermatzea</p> <p>Eguna baikor eta motibaturik bukatzea.</p>		<p>Zein erabiliko nituzke? Zergatik? Zein ez? Zergatik?</p> <p>Hiztegi berriarekiko sentipenei buruzkoak: Zer errateak ematen dit lotsa? Zenbatetan erabili beharko nuke X esapidea nigan indarra har dezan, adierazkorra dela sentitzeko?</p> <p>Lanketaren ingurukoak: Zertan sentitzen dut hobetzen ari naizela ene hizkeraren adierazkortasuna? Zertan ez? Zer sumatzen dut faltan nire hizkeraren adierazkortasuna indartzeko? Nola lor nezake?</p> <p>Hizkera adierazkortasunaren gogoeten ingurukoak: Gaur adierazkortasunaren inguruan zer gogoeta etorri zait burura?</p> <p>Norbere sentipen eta elkarbizitzaren ingurukoak: Zer sentipen izan ditut gaur? Zer ez dut hain ongi bizi izan elkarbizitzan? Zer hobetuko nuke? Zer eskertu dut asko?</p>	<p>sentipenek errazenik zein ezaugarriak esamoldeak diren sozializatuko identifikatzea ahalbidetuko digute.</p> <p>Hau baloratzeak, ikusaraziko digu lanketaren zein lekutan kokatzen garen, eta aurrerantzean eman beharreko urratsak norabidetzen.</p> <p>Euskararen erregistro informaleko adierazkortasun linguistikoaren lanketa elikatzen duten gogoetak jasotzea.</p> <p>Talde eragilerari bakoitzaren ongi izatean eta elkarbizitzan zaindu beharrekoak ikustaraztea</p>
--	--	---	--

		Eguneko anekdotarik graziosoena adierazkorki kontatu	Anekdotak hauek modu adierazkorrean idatzita jasotzeko, gero, hurrengo barnetegietan parte hartzeko jendea motibatzea.
Besteen hizkeran arreta jartzea. Norbere hizkerari dagokionean, norbera ohartu ez den gauzez konturatzen laguntzea. Konfiantza, motibazioa eta konplizitatea sortzea.	Bikoteka, ahoz (20 min)	Bestearen hizkeraren inguruko galderak: Nola ikusi duzu pareko pertsona? Zer gustatzen zaizu bere hizkeran? Zer hobekuntza egin dituela sumatzen duzu? Zer leukake lantzeko? Nola landu dezake?	Lanketarekin jarraitzeko pistak jasotzea.
Norkbera elkarbanatzea	Bakoitzak bere liburuxkan idatzitakotik taldeari ekarpena egingen diona elkarbanatuko du (30/40 min)	Pilota baten bidez parte hartze orekatuan jarriko da arreta. Hitz egin nahi duenak pilota eskatzeko aukera ukanen du. Entzun nahi den pertsonari botako zaio pilota.	
Hurrengo egunerako motibazioa sortzea, ardurak banatzea eta ordutegia errespetatua izatea.	Hurrengo eguneko egitaraua aurkeztuko da	Egitaraua paper handi batean idatzita egonen da.	

5.5.4. Eguneko ardurak eta misioak

Barnetegiaren funtzionamendu teknikoari dagozkion, mahaiko arduradunak eta jasotze eta garbiketakoak egoteaz gain, barnetegiko lanketaren parte izanen diren beste hiru ardura garrantzitsu banatuko dira egunero partaideen artean.

Lehen ardura esnatze jolasa prestatu eta dinamizatzearen ardura izanen da. Esnatze jolas hauen funtzio nagusia, izenak dion gisan, taldekideak esnatu eta eguneko dinamikan sartzea da. Jolas biziak izatea komeni da horretarako, hizkeraren adierazkortasunarekin lotura daukatenak. Aldez aurretik banatuko dira ardura hauek lehen eguneko antolaketa asanbladan, bakoitzak bere esnatze jolasa aurreikusi eta prestatzeko denbora ukan dezan. Egunero pertsona desberdin batek prestatzeak, lan handia ez den heinean, taldekide bakoitzari bere ekarpen txoa egitea ahalbidetuko dio, tadeari dinamika polit bat oparituz. Dinamiken aniztasuna bermatuko du horrek.

Bigarren ardura etxea esamolde adierazkorrez apaintzea izanen da. Horretarako, postitlariaren figura sortuko da. Postitlariak ordura arte gehien gustatu zaizkion esamolde adierazkordun postitak nahi dituen lekuetan itsatsiko ditu. Egunero Postitlari ezberdin bat izanen denez, honek, bezperako postitak utzi zein kentzeko aukera ukanen du.

Azken ardura, barnetegian zehar sortuko den figura berezi bati dagokio: Galtxagorria. Figura honen helburua, gure planteamendu pedagogikoan behar ditugun egoera artifizialak jolas bidez probokatzea da, partaideak eguneroko egoera naturalekin berez ematen ez diren aurrerapen saltoak egitera bultzatzeko. Galtxagorriaren nortasuna ezkutua izanen da, taldekide bakoitzak burukiaren azpian aurkituko du gauean, egun oso baterako Galtxagorri izaera esleitzen dion papertxo eta hurrengo egunerako tokatu zaion misioa. Galtxagorriak egunean egun landurikoarekin zerikusia ukanen duen misio bat ukanen du (adibidez: bigarren eguneko Galtxagorriak ingurukoak hitanoa erabiltzera bultzatu beharko ditu etengabe, “hi ez al dakik hika hitzeiten...” bezalako esaldiak erabiliz. Laugarren eguneko Galtxagorriak noiz nahi, esaera zaharrak hasteko misioa ukanen du, ingurukoek jarrai dakioten).

Barnetegiko gela ikusgarri batean gune oso garrantzitsu bat sortuko da: Galtxagorrien paretan. Galtxagorrien paretan, eguneko Galtxagorriak, misioa lortuz gero, bere burua zorientzeko mezu bat idatzi beharko du, lortu ezean aldiz, eskela idatziko du. Erran gabe doa, mezu original, umoretsu eta adierazkorrak espero direla. Bestalde, norbaitek Galtxagorria nor

den susmatuz gero, mehatxu mezu bat idatz diezaioke, baina ezinbestean, azken eguneko epaiketaren zain geratu beharko da, hau galtzailatzat jotzeko. Figura honen nortasun ezkutuak, jakin mina sortuko du, talde giro eta konplizitatearekin batera, baita misioa betetzeko motibazioa ere. Galtzagorrien pareta eta amaierako epaiketak ere helburu hori dute, jolasari intriga gehiago eman eta barnetegi giro onean bukatzeko aukera dira.

Egun bakoitzean Galtzagorri bat baino gehiago egon litezke egun berean misio berarekin, taldekide orori Galtzagorri izateko aukera bermatze aldera. Era berean, egun berean etxea apainduko duten bi postitlari ere egon litezke edota esnatze jolasa biren artea prestatu, barnetegiko partaide kopuruaren arabera.

5.5.5. Egunez eguneko plangintza

Atal honetan, hasiera batean egunez eguneko azalpen xehea testu forman idatzi bagenuen ere, azkenean, formatu argiagoa iruditu zaigula eta, eguneko fitxa bat prestatu dugu, taula forman. Taula formatuaren hertsipenak direla eta, ezin izan gara proposaturiko ekintzen justifikazio zein azalpenetan luzatu. Ariketen azalpenak zein une desberdinetarako gida lerro edo galdera proposamenak eranskinetan azaldu ditugu.

1.eguna: Behaketa

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
Partaideen hizkeraren nolakotasuna behatzea, nondik abiatzen garen jakiteko. Zer profil	Behaketarako balio duen pertsona bat	Atazaurrea Ongi etorria Ataza Barnetegian sartzeko dinamikak:	Atazaurrea Gogoeta unea: Euskararekiko bizipenak elkarbanatu 1.Bakoitzak bere bizipenak gogora ekarri eta hitz gutxitan papereratuko ditu ⁷	Behaketa: Gonbidatuak, barnetegiaren dinamizatzaile lanetan dabiltzanek eta partaideek

⁷ Eranskinetan azaltzen da, 69.orrialdean.

<p>desberdin dauden behatu eta zein indargune eta zer behar dauzkaten identifikatzea, lehentasunak finkatzeko.</p> <p>Erronkak identifikatzea, espektatibak bateratu eta metodoa adostea. Konfiantza giro polita sortzea</p>		<p>1.Aurkezpen jolasa²</p> <p>2. Mantaren joko³</p> <p>Feed backa Konfiantza jolasak:</p> <p>1.Izenak ikasteko jolasa⁴</p> <p>2.Argazkilariarena⁵</p> <p>3.Airera proba⁶</p>	<p>2. Jarraian biografia linguistikoak elkarbanatzeari ekingo diote.</p> <p>Ataza Barnetegiko ibilmolde eta antolakuntzaren inguruko asanblada: Liburuxkak banatu eta erabilera azaldu.</p> <p>Norkbere liburuxkan, zergatik eta zertara etorri den barnetegira idatziko du.⁸</p> <p>Nahi dena elkarbanatuko da.</p> <p>Talde handiko asanblada⁹</p> <p>Feed backa Talde txikitan adierazkortasuna definitzeko saiakera. Ondoren modu sortzaile eta adierazkor batean besteen aurrean azaltzeko.</p> <p>Gaubela Telepathy jolasa¹⁰</p>	<p>berek norbere hizkeragan arreta jarri eta bestea behatuko dute.</p>
--	--	--	--	--

² Eranskinetan azaltzen da, 68.orrialdean.

³ Eranskinetan azaltzen da, 68.orrialdean.

⁴ Eranskinetan azaltzen da, 68.orrialdean

⁵ Eranskinetan azaltzen da, 69.orrialdean

⁶ Eranskinetan azaltzen da, 69.orrialdean

⁸ Eranskinetan azaltzen da, 70.orrialdean

⁹ Eranskinetan azaltzen da, 70.orrialdean

¹⁰ Eranskinetan azaltzen da, 71.orrialdean.

2.eguna: Hitanoa

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
<p>Hitanoaren funtzionamendua barneratzea eta erabiltzen hastea.</p> <p>Hizkerazko hautu kolektibo bat egitea.</p> <p>Hitanoaren bidez, berehalako adierazkortasun sententzia eta lorpen txiki horren satisfakzio eta motibazioa sentitzea.</p> <p>(Gainerako egun guztiak dauzkate aurretik hitanoa finkatu eta guztiz berena egiteko.)</p>	<p>Hitanoa ikasi eta erabiltzeko hautua egin duen pertsona bat</p>	<p>Esnatze jolasa</p> <p>Atazaurrea Gonbidatuaren aurkezpena</p> <p>Ataza Hitanoaren teoria landuko da, aditzak barneratu eta euskalki desberdinetako aldagarritasunak entzun eta azalduko dira. Hikako esaldi adierazkor erabilgarri batzuk ikasiko dira.</p> <p>Feed backa Binaka konfiantzan, eztabaida interesgarriak hika¹¹</p>	<p>Atazaurrea Gogoeta saioa hitanoaz.¹² Talde txikietan.</p> <p>Ataza Binaka “Bestelakoak” hiztegia landu. Gustatu eta erabilgarriak iruditutako esamoldeak azpimarratu eta esaldi batean erabiltzen saiatu.</p> <p>Feed backa Binakako antzerkitxoak prestatu hika eta esamolde horiek erabiliz</p> <p>Gaubela Elkarren antzerkiak ikusi. Tartetik aurkezleak egon litezke, hizkera adierazkorrean antzezlan batetik besterako lotura egiten.</p>	<p>Galtxagorriaren misioa: partaide guztiek uneoro hika hitz egitea da. Hika hitz egiten ez duen orori “hi hitzein zank ba hika! Hi, ez al dakink ba hika hitzeitten?” oroitarazi beharko dio.</p>

3.eguna: Ausardia

¹¹ Gai proposamenak eranskinetan, 72.orrialdean.

¹² Gogoeta bultzatzeko galdera proposamenak eranskinetan, 72.orrialdean.

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
<p>Norbere konfiantza eta ausardia linguistikoa landu eta indartzea.</p> <p>(Euskara adierazkorraren lanketarako gako garrantzitsuak dira guregan dugun konfiantza eta ausardia, hori gabe zaila izanen baita hizkera adierazkorra esperimentatzea.)</p>	Euskaldun berri bat	<p>Esnatze jolasa</p> <p>Atazaurrea Gonbidatuaren aurkezpena</p> <p>Ataza Gonbidatuari galderak¹³</p> <p>Feed backa Pozaren adierazleak landu, banaka, zerrendatik baliagarrienak azpimarratuz.</p>	<p>Atazaurrea Euskaldun berriez.</p> <p>Lan honetako “Euskaldun Berrien euskararen adierazkortasuna” atalean azaleratutako problematikei helduko zaie eta bakoitzak bere hausnarketak plazaratzeko aukera izanen du. Denen artean problematikari errealki orain nola heldu diezaiokegun gogoetatu eta adosten saiatuko gara.</p> <p>Ataza Clown ikastaroa ariketak</p> <p>Feed backa Clown ikastaroko bukaerako ariketa</p> <p>Gaubela Kutxa jolasa¹⁴</p> <p>Balorazioa Ahal den heinean, ikasitako pozaren adierazleak erabiliz</p>	<p>Galtxagorriaren misioa: bere ingurukoek ahal bezainbat poz adierazle erabiltzea izanen da. Berari esker erran dituztenak apuntatu beharko ditu liburuxkan.</p>

4.eguna: Arbasoengandik

¹³ Hiztun berriagandik jaso nahi genukeena, eranskinetan, 73.orrialdean.

¹⁴ Eranskinetan azaltzen da, 74.orrialdean

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
<p>Hizkera adierazkordun batekiko inbidia sentitzea.</p> <p>Ondare tradizionaletik balio diguten adierazkortasun baliabideak jaso eta balio digunaz eta ez digunaz hausnartzea</p>	<p>Ulergarri baina aberats, ez euskalki itxi batekoa baina adierazten ona eta baliabide erretoriko ugari darabilzkien adineko bat</p>	<p>Esnatze jolasa</p> <p>Atazaurrea Gonbidatuaren herrira txangoa.</p> <p>Euskalduntze barnetegiak egiten diren herri bat izatea litzateke ideala, bertako herritarrengandik euskara konpartitzearen esperientzia jasotzeko.</p> <p>Ataza Gonbidatuaren aurkezpena, kontakizunak</p> <p>Feed backa Barnetegikideekin elkarriketa</p>	<p>Atazaurrea Transmisio etenaz.</p> <p>Lehengo lagunarteko hizkeraz eta gaur egungoaz hausnartuko da, bilakabidearen zergatiaz. Zer berreskuratu eta nola gogoetatuko da.</p> <p>Ataza Pertsona adierazkorrekin eta esaera zaharrekin Ginkana herrian zehar.¹⁵</p> <p>Feed backa Etxera bueltan, esaera zahar berriak asmatzen.</p> <p>Gaubela Norberak aitona amonekin bizi izandako kontakizun bat kontatu beharko du.</p> <p>Baldintza: Kontalaria oso hizkera adierazkorra duen aitona edo amona izanen da. Kontakizun bakoitza, kontakizunaren harira datorren esaera zahar batekin amaituko da, tradizionala ala asmatuakoa.</p>	<p>Galtxagorriaren misioa: Noiz nahi esaera zaharrak hasia, tradizionalak edo berak asmatuak, adibidez: “a ze pare...”, “urrutiko intxaurreak...”, “mugikorrek ordenagailuari...”</p>

¹⁵ Eranskinetan azaltzen da, 74.orrialdean.

5.eguna: Umorea

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
<p>Euskarazko umorea egiteko gabeziak identifikatu eta errekurtoak lantzea.</p> <p>Norkbere umore baliabideak proban jarri eta garatzea.</p>	Umorea ikertu eta landu duen pertsona bat	<p>Esnatze jolasa</p> <p>Atazaurrea Gonbidatuaren aurkezpena</p> <p>Ataza Umorea egiteko errekurtoak lantzeko saio txo bat prestatzeko eskatuko zaio gonbidatuari</p> <p>Feed backa Bakarka ezaugarri fisikoen hiztegia landu. Ondoren, txandaka, partaideek pertsonaia ezagun baten deskribapen umoretsu bat egin beharko dute eta gainontzekoek nor den asmatu</p>	<p>Atazaurrea Euskarazko umoreaz gogoeta.</p> <p>Zer umore egiten den euskaraz, lehen eta orain erabiltzen diren umorerako baliabideez, zer indargune eta hutsune dituen euskarazko umoreak, nola landu beharko litzatekeen...</p> <p>Ataza Umorezko antzerki bat ikusi</p> <p>Feed backa Antzerkian, adierazkortasuna nola bilatzen da, antzerkilariekin gogoeta horien lanketaz.</p> <p>Gaubela Txiskola! Txiste lehiaketa (eszenografia landuko da epaileak, aurkezleak...) eta barnetegiko partaideei lehenagotik abisatuko zaie, kontatuko dituzten txisteak landu ditzaten.</p> <p>Txiskolako irabazlearen saria eta Eguneko graziosoaren saria banatuko dira. Sari original eta umoretsuak izanen dira</p>	Galtxagorriaren misioa: Hizkera oso umoretsu eta graziosoa erabiltzea, graziosodunenare n saria irabazteko.

6.eguna: Ligatzea

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
Amodioa eta sexuaren inguruko hiztegia landu eta erabiltzen trebatzea	Arrakasta izan duen euskarazko telesail bateko aktore bat.	Esnatze jolasa Atazaurrea Gonbidatuaren aurkezpena	Atazaurrea Euskaraz ligatzeaz gogoeta, zer eredu dauzkagu eta nolakoak dira. Nola hobe genitzake? Ataza Sexu hiztegia landu, eraginkorrena iruditzen zaien formatuan (banaka, binaka, berridatziz, azpimarratuz, sailkatuz....)	Piropoposta: Gosaritan aurkeztuko zaie, egun osoan zehar elkarrri piropoak idatzi eta kutxa horretan sartu beharko dituzte.
Barnetegi erditsutan taldea eta elkarrri piropoak idatziz, taldea eta lanketarako motibazioa indartzea	Ligatzeko hiztegia lantzeko egokia den norbait	Ataza Maite kantak, olerkiak eta esaera zaharrak landu Feed backa Taldea txikitan, maitasun eszena baten doblaje jostaria	Feed backa <i>Berbeta berua</i> (Telleria 2003) liburuan agertzen diren marrazkien burbuletako idatziak kendu eta partaideen lana izanen da esamoldeak asmatu eta sortzea. Denbora emanez gero komikia idazten jarraitu Gaubela Piropoposta irakurri, gitarra fondoan	Galtxagorriaren misioa: ondorengo egunetan, bakoitzari buruki azpian, maitasun deklarazio gutuntxo bihurri bat uztea, landuriko hiztegiak inspiraturik.

7.eguna: Iraintzea

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
<p>Euskarazko irainak lantzea</p> <p>Jolas lehiakorren bidez, norbere irain eta biraoak proban jarri eta talde giro zirikatzailea sortzea</p>	<p>Irainak landu dituen norbait</p>	<p>Esnatze jolasa</p> <p>Atazaurrea Gonbidatuaren aurkezpena</p> <p>Ataza Irainen hiztegia landu</p> <p>Feed backa Haserretzera daramaten egoera batzuk eman eta antzerki inprobisatuak</p>	<p>Atazaurrea Emozioak erdaraz adierazteaz gogoeta. Zergatik haserretzean erdarara jotzen dugun gogoetatuko da, emozio barnekoenak adierazterakoan erdaretara jotzeak euskararentzat zer erran nahi duen...</p> <p>Ataza Jolas edo dinamika desberdinak proposatuko dira. Adibidez pilota partidu bat jokatzea edo sukaldaritza errezeta bat elaboratzea izan daiteke. Baina hertsapenak jarriko zaizkie parte hartzaileei, esaterako pilotan ezkerreko eskua baizik ez erabiltzea edo errezetak parte biziki delikatu bat izatea. Birao naturalak probokatzea da xedea.</p> <p>Feed backa Elkar iraintzen diharduten telebista edo irrati programak entzun eta euskaratu edo hobetzen saiatu</p> <p>Gaubela Jolas lehiakorra¹⁶</p>	<p>Galtxagorriaren misioa: Zirikatzailea izan eta 5 pertsonen irain dezaten lortu beharko du</p>

¹⁶ Azalpena eranskinetan, 74.orrialdean

8.eguna: Gazte hizkera

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
Gazte hizkeraz hausnartzea, gaur egun gazteek dauzkaten ereduez eta eredu horiek nola hobetu daitezkeen. Gazte erreferentziadun hizkera adierazkorra esperimintatzea.	Entzule gazteei zuzenduriko irratsaio bateko esatari bat	<p>Esnatze jolasa</p> <p>Atazaurrea Gonbidatuaren aurkezpena</p> <p>Ataza Parrandako hiztegia landu</p> <p>Feed backa Rol playinga: egoera bat proposatu eta partaide batzuk inprobisatzera atera beharko dira, taberna giroko elkarrizketak antzeztuz</p>	<p>Atazaurrea Gazte hizkeraz gogoeta.</p> <p>Sakontze Egitasmo honen lehen zatia txoko batean irakurgai jarri daiteke, interesa lukeenak irakurtzeko, bereziki gazte hizkera adierazkorra eta hizkuntzaren estetikaz doazen zatiek gogoeta aberastuko luketelakoan.</p> <p>Ataza Hiru taldetan: -Euskadi Gazteako irratsaio bat grabatu -Goazeneko gidoi bat idatzi -Gu ta gutarraken antzeko telebista programa bat prestatu gaubelarako</p> <p>Feed backa Irratsaioa eta gidioia gainontzekoei aurkeztu</p> <p>Gaubela Gazteentzako telebistako programako platoa</p>	<p>Mezuak: Egun horretan taldeko watxap talde bat sortuko da (barnetegitik kanpo taldeak batzen jarrai dezan erabilgarria izanen dena) eta bertatik, gazte adierazkorrek komunikatuko luketen moduan komunikatuz, taldekide bakoitzak gutxienez pare bat mezu idatzi beharko ditu.</p> <p>Galtxagorriaren misioa: Egunean zehar oso watxap adierazkor eta landuak idaztea</p>

9.eguna: Euskalkiak eta haur hizkera

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
<p>Euskalki desberdinak gure ahotik esperimentatzea.</p> <p>Euskalki vs Batua aurreiritziez hausnartzea.</p> <p>Haur hizkera lantzea</p>	<p>Euskalki desberdinak ikasi eta darabilzkien norbait. Haur hizkera ere landu duena</p>	<p>Esnatze jolasa</p> <p>Atazaurrea Gonbidatuaren aurkezpena</p> <p>Ataza Euskalki bakoitzeko ezaugarri adierazkorrak landu: Tonua, fonetika, hitzak, esamoldeak</p> <p>Feed backa Antzerki labur bat proposatuko zaie taldekideei euskara estandarrean idatzitakoa eta euskalki desberdinetan antzezteari ekin beharko diote.</p>	<p>Atazaurrea Gogoeta saioa euskalkiez.</p> <p>Interesgarria litzateke saioa hasteko Ortega eta besteren (2016) lanean jasotzen diren, aldaera dialektalen inguruko aurreiritzi eta sentipenen lekukotasun zenbait irakurtzea.</p> <p>Ataza Xuketa tratamendua eta haur hizkera landuko dira.</p> <p>Feed backa Ahotsa.eus webguneko adineko hiztunen bideo zenbait ikusiko dira.</p> <p>Adinekoen mintzamoldean sarturik, egunkaria hartu eta bikoteka bi zahar izanen balira bezala komentatuko dira bertan agerturiko berriak.</p> <p>Gaubela Ipuinak kontatzen</p>	<p>Erronka: Egun osoan zehar saia daiteke baina bazkalorduan arau bezala jarriko da norberea ez den euskalki batean mintzatzea.</p> <p>Galtxagorriaren misioa: Bere euskalkian hitz egiteko debekua ukanen du egun osoan zehar.</p>

10.eguna: Sortzailetasuna

Helburuak	Gonbidatua	Goizean	Arratsaldean	Egun osoan zehar
<p>Adierazkortasunaren lanketan ari direnen esperientzia jasotzea.</p> <p>Hizkeraren sortzailetasuna garatzea</p>	<p>Pare bat raplari/bertsolari</p>	<p>Esnatze jolasa</p> <p>Atazaurrea Gonbidatuen aurkezpena</p> <p>Ataza Rapean eta bertsotan adierazkortasuna lortzeko erabiltzen dituzten teknikak, egiten duten hizkuntzaren lanketa eta nola lantzen duten erreferentzia mundu berri bat</p> <p>Feed backa Free Style saio bat. Adierazkortasun modu horretaz gozatzea, partaideei motibagarria eta estimulantea egingen zaie.</p>	<p>Atazaurrea Gogoeta saioa: nola sustatu euskal hiztun komunitatean, adierazkortasun lanketa eta sorkuntza giroa?</p> <p>Ataza Haserrea adierazteko hiztegiaren lanketa</p> <p>Feed backa Banaka edo taldeka, bakoitzak nahi duen eran, haserretik rap bat idatzi (norbaitekin haserre, norbere buruaz kexu, politikoekin indignatua, munduarekin haserre...)</p> <p>Barnetegiaren parodia prestatu</p> <p>Gaubela Bukaerako antzezlan adierazkorra</p>	<p>Galtxagorriaren misioa: Kide bakoitzari nezeserrean beretzat espresuki aukeratutako esamolde bat sartzea izanen da</p>

11.eguna: balorazioa eta agurra

Helburuak	Eguneko ekintzak
Adierazkortasun linguistikoaren lanketan barnetegian bizitako esperientzia baloratzea	Esnatze jolasa Atazaurrea Balorazio orokorra Barnetegiko esperientziaren bizipenak jaso, aurrerapenak, hobetzekoak... ¹⁷
Lanketarako jarraibideak zehaztea	Ataza Etorkizunera begira adierazkortasunaren lanketarako jarraibideak zehaztu ¹⁸
Barnetegia giro ezin hobean amaitzea	Feed backa Galtxagorrien epaiketa eta galtzaileen prenda. Galtxagorrien paretean agerturikoa irakurri eta susmoen arabera egunez egun ustezko Galtxagorria akusatuko da. Misioa lortu ez duen eta desmaskaratua izan den Galtxagorri bakoitzak ondorengo hilabeteetan taldeari plan bat proposatu eta aurrera ateratzeko ardura izanen du.

¹⁷ Honetarako, liburuxkan agertuko diren galdera proposamenak eranskinetan daude, 75.orrialdean

¹⁸ Proposamena eranskinetan, 75.orrialdean

5.5.6. Hilabete batera bigarren balorazioa

Hilabete bat pasa ondotik, barnetegiko partaideak berriro elkartuko dira horien hizkera adierazkorraz bigarren balorazio bat egiteko. Hilabete bat bada denbora tarte nahikotxo barnetegian landurikoa proban jartzeko, egunerokotasuneko ohituretara lerratzeko ala ohitura berriak sartzeko.

Helburu orokorra	Helburuak	Estrategia	Baliabideak	Balorazioaren erabilera posibleak
Adierazkortasun linguistikoaren lanketan barnetegian bizitako esperientzia baloratzea Hilabete baten buruan berriz ere, hizkera lantzeari buruz pentsatzen jarri eta jarduna baloratuz, barnetegian lorturikoa gogora ekarri eta berrindartzea, partaideak, norbere hizkeraren lanketan jarraitzera motibatuzeko	Zer ikasi duten argitzea Nola ikas daitekeen ohartzea Zertarako balio izan dien partekatzea Nola sentitu diren jasotzea Barnetegiak dituen hobetzekoak argitzea Barnetegiaren baliagarritasuna baloratzea (hobetzekoak, ondo eginak...) Barnetegiari buruzko beste ohar batzuk jasotzea Teknikak baloratzea	Galdetegia bete bakarka Taldea handian elkarbanatu, eztabaidatu eta hausnartu	Liburuxkan agertuko diren galdera proposamenak: Barnetegi aurreko mintzamoldea eta oraingoa konparatu. Barnetegiko azken eguneko eta gaurkoa. Zertan hobetu naiz ? Zertan ez ? Zer hitz eta esamolde berri erabiltzen ditut ? Norekin ? Zer testuingurutan ? Nola sentitzen naiz? Zein izan dira erabiltzeko baldintzak ? Zein erabiltzeko oztopo ? Nola segituko dut ene hizkeraren adierazkortasuna lantzen ? Norekin ?...	Taldea eragilearentzat lanketa findu eta lanketan jarraitzeko apunte baliotsuak izanen dira

6. Ondorioak

6.1. Lanean egindakoaz

Laburbilduz, euskararen erregistro informalean sumatutako adierazkortasun linguistikorako gabeziak azaldu ditugu, lagunarteko hizkera informalaren adierazkortasuna landu beharra mahaigaineratuz. Lanaren ekarpen aipagarriena hainbat ikerketak plazaratu problematika honi heldu nahian, euskararen erregistro informaleko adierazkortasun linguistikoa lantzeko proposamen praktiko bat marraztea izan da. Barnetegiaren lan hipotesia ahal bezain zehazki garatu dugu, noizbait norbaitek esperientzia hau praktikara eraman ahal izateko baliabideak xehe-xehe eskaintzea helburutzat harturik. Proposamen pedagogikoan hainbat ekintza eta lanketa modu diseinatzen joan gara, hizkera adierazkortasunaren inguruko korpua eta teoria lantzearekin batera, ereduak eta hiztun erreferenteak ekarri ditugu. Lanean, hizkera adierazkorra erabiltzeko ariketa praktiko ugari proposatzen dira, baita barnetegiko egunerokoan, landurikoa praktikan emateko estrategiak ere. Alde emozionalaren lanketari leku berezia egin diogu, hiztunaren bizipenak, sentipenak eta konfiantza linguistikoa proposamen pedagogikoaren erdigunean kokatuz. Bestalde, euskarazko erregistro informaleko adierazkortasunak barnebiltzen dituen hainbat problematikaren inguruko gogoeta espazioak ere diseinatu ditugu, barnetegi honek, hiztun komunitate osoan eman beharreko lanketaren norantza eta urratsak marrazten joateko ekarpena ere egin dezan.

6.2. Lanak zabaldu dizkigun lanketa lerroak

Proposamen hau, eginen den lehen barnetegia, hots, esperientzia pilotua izateko dago diseinatua, eredu metodologikoa proban jarri eta lantzeko. Norbanako hiztuna erdigunean jartzen duen proposamena da, hiztun ororentzat balioko lukeen hizkera lantzeko tresna. Baina barnetegi proposamen eredu orokor hau egiteak hainbat lanketa lerro zabaldu dizkigu. Izan ere, eredu pedagogiko hau xede talde desberdinetara moldatu beharra dago. Argi daukagu, hizkuntzaren lanketarako ikuspegi eta praktika hauek hezitzaile, irakasle, kultur eragile zein hedabideetako hizlariengana zabaldu behar direla. Gonbidapena egin beharko zaie, euskararen adierazkortasunaren lanketara batu daitezen; horiengandik lagunarteko hizkera indartsu eta erakargarriago bat zabaldu dadin herritarrengana.

Bestalde, uste dugu eksklusiboki gazteek elkarbanaturiko esperimentazio gunea sortzeak berebiziko garrantzia izanen duela, helduenarengandik ezberdina den eta mundu erreferentzial propioa duen gazte hizkera adierazkorra indartzera bidean. Naturalki baino kontzienteki egin beharreko lanketa litzateke. Bai modu indibidual, bai kolektiboan gure hizkera lantzeko txipa orokortzea lortu beharko genuke. Gazteen erreferente direnak txip horretan baldin badaude eta hedabideetan, aisialdian, eskolan... hizkera informala euskaratik adierazkortzeko lanketa eramaten ari bada, orduan bai agian plantea genezakeela gazteek naturalki sortuko dutela euskarazko gazte hizkera bizi eta aberats bat.

Beraz, proposamen hau hiztun profil eta gizarte eragile zehatzetara moldatuko liratekeen barnetegi egokituak diseinatzeko lanaren abiapuntua baino ez da. Batzuetan, garrantzitsua izanen da Euskal Herriko txoko eta jatorri linguistiko desberdinetatik datorren jendea elkartzea bertan, denentzako egokia litzatekeen hizkera izateko sorgai. Besteetan, eskualdeka eta euskalkika diseinatuko dira barnetegiak.

Bestalde, lanketa honetatik, ohiko barnetegi eta udalekuetarako hizkeraren adierazkortasuna lantzeko gida lerroak ere atera litezke, baita ikastetxe zein hedabideetara eramateko proposamenak ere. Ikuspegi eta praktika hauek modu eta formatu desberdinetan aurrera eraman daitezke. Ez zaigu lanik falta.

Azkenik, kulturgintzaren garrantzia azpimarratuko genuke lanketa honetan. Izan ere, antzerkiak, rapak eta bertsoak bezalako diziplinek, adierazkortasuna euskaraz bilatzeko ari diren etengabeko langintzan, hainbat pista eskain diezazkigukete. Horrez gain, ekarpen handia egin dezakete mundu erreferentzial bat sortzeko langintzan.

Ororen buru, gizarte mailan, norbere hizkera adierazkortzeko motibazioa eta baliabideak bultzatu behar direla ikusten dugu. Horretan jarri nahi izan dugu gure aletxoak proposamen honekin. Batzuen lanketak beste hiztunen bidea erraztuko duelakoan, lana bukatzen ari ginela topatu dugun aipu hau:

“Nahiago nuke uhin bat hedatuko balitz belaunaldi gaztean: hizkera zorrozteko moda. Demagun ideia eragile bat zirkulazioan jartzen dela: *hizkuntza-potentzia indibidualaren eraikuntza gutako bakoitzaren bizitza osoko zeregina da*. Eta gustua hartzen diola jende multzo batek, bakoitzak bere modura. Halako zerbait behar duela uste dut datorren

hamarraldietan euskarak. Kontsigna moduan edo moda tankeran hedatzen irudikatzea ez da erraza, egia esan. Izan bedi behintzat imitazioz hedatuko den uhin koxkorra: norbere hizkera zorroztearen plazera.” (Sarasua 2013)

Jada badago plazerezko lanketa honen zantzurik:

"Esaterako, Hernialdeko (ez Hernaniko) gazteen artean (eta beste Gipuzkoako herri txiki batzuetan ere sumatu dut antzerako joerarik) euskara adierazgarriagoa eta “berenagoa” egiteko, herriko hiztun zaharrei entzuten dizkien eta eurek transmisio zuzenez jaso ez dituztenak hartu eta beren egiten dituzte, gisa honetara, gaztelerako esamoldeak sartu beharrean euskara jatorragoa egiten saiatzen dira. Esamolde berria taldera dakarrenak taldean esan ondoren taldekide edo lagunek arreta jartzen diote esamoldeari (gehienean grazia puntua izan ohi dute) eta gainontzekoek ere beren egiten dute". (Alaitz Imaz, 2018)

Planteatzen ari garena hain irreal ez dela ikustarazten digun ikasle baten azken aipu argiemaile hau gorde dugu lanaren amaierarako, bide emankor baten hasiera izan bedi.

7. Bibliografia

Altuna, J. (2004). Lagunarteko gazte-hizkerarekin jolasean. *Erabili*:

<http://www.erabili.eus/zer_berri/berriak/1086940689/inprimatzeko> [Azken kontsulta: 2018/07/20].

Amonarriz, K. (2002). Kaleko hizkeran hankamotz. *Argia*: <<http://www.argia.eus/argia-astekaria/1850/kaleko-hizkeran-hankamotz>> [Azken kontsulta: 2018/07/20]

Amonarriz, K. (2008). Gazte hizkerak-hizkera gazteak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 167-183.

Amonarriz, K. (2014) Tribuaren berbak: Euskal umorea.

<<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-1-godenboraldia/4104723515001/4090100380001/euskal-umorea>> [Azken kontsulta: 2017/08/09]

Amonarriz, K. (2015). Ahozkotasuna soziolinguistikaren behatokitik. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 96, 103-127.

Astiz, I. (2014). Euskara, eskuara, euskera eta abarrak. *EIBZko liburutegia*.
<<http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/liburutegia/2014/10/euskara-eskuara-euskera-eta-abarrak/>> [Azken kontsulta: 2018/07/20]

Badiardugu euskara elkarte (2014-2018). Gazte Hiztegia. *Gazte gara gazte proiektua, Euskal Herriko Ahotsak*. <<http://gazteak.ahotsak.eus/gazte-hiztegia/>> [Azken kontsulta: 2018/07/20]

Darquennes, J. (2013). Ikasleak Hiztun 2011ko Arrue Proiektua, Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Elosegi, J., Izagirre, K., Landa, J. (2004). Euskal Lokuzioak sarean. *Intza proiektua*.
<<https://intza.armiarma.eus/>> [Azken kontsulta: 2018/07/20]

Esnaola, I. (1999). Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain. UEU, Bilbo.

Esnaola, I. & Illarramendi, A. (2000). Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa. *Hazi Hezi*, 49.

Etxegoien, F. (2004). *Neurona eta zeurona: Hizkuntza "estetika" bezala*. Pamiela.

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde Publikoa. (2017). VI. inkesta soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa. <<http://www.berria.eus/agiriak/ikusi/1720/>>
[Azken kontsulta: 2018/07/20]

Gullón, U., Juaristi, J. M. (2009). Hizkera adierazkorra. *Euskal Kulturgintzaren transmisioa aditu-tituluaren amaierako lana*

Hazi Hezi. (2013). Euskaraz aritzeko koherentzia minimo bat. *Argia*:

<<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2382/mungiako-larramendi-ikastola>> [Azken kontsulta: 2018/07/20]

Hernandez, J. M. (2005). Jolasgaraia: gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak.

Soziologiazko Euskal Koadernoak 16. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Ibarra, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Universidad Pública de Navarra= Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Imaz, A., (2018). Bigarren hezkuntza masterreko gogoeta lana.

Izagirre, K. (1981). Euskal lokuzioak. *Espainolezko eta frantsesezko gidazerrendarekin*.

Hordago, Donostia.

Larrinaga, A. (2002). Kaleko hizkeran hankamotz. *Argia*: <<http://www.argia.eus/argia-astekaria/1850/kaleko-hizkeran-hankamotz>> [Azken kontsulta: 2018/07/20]

Larrinaga, A. (2014). Euskararen desafektua (III). 31 eskutik.

<<https://31eskutik.com/2014/11/03/euskararen-desafektua-iii/>> [Azken kontsulta: 2018/07/20]

Ortega, A., Amorrortu E., Goirigolzarri J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

Telleria, A. (2003). *Berbeta berua*, Badihardugu Elkarte, Eibar.

Sarasola, I. (1997). *Euskara batuaren ajeak* (Vol. 8). Alberdania.

Goenaga, P. (2010). "Euskara tresna bizi, adierazkorra, praktikoa, eroso ez den heinean, beti izango dugu tentazioa erdarara jotzeko". Erabili. Eus:

<<http://www.erabili.eus/plangintzak/gurien/1269257541>> [Azken kontsulta: 2018/07/20].

Sarasua, J. (2013). *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz, apunteak*. Pamiela.

Unibertsitatea.net. (2016). Garbiñe Bereziartuari elkarrizketa:

<<http://www.unibertsitatea.net/aktualitatea/garbine-bereziartua-2016gazte-batentzat-gaztelaniara-jo-beharrik-ez-izateko-baliabide-garrantzitsua-da-euskalki-baten-jabe-izatea2016>> [Azken kontsulta : 2017/05/09]

Urmeneta, A. (2015). *Mantxut*, Komunikazio biziagoa, Argia.

Zalbide, M. (2015). Tribuaren Berbak: Hamaika tribu, hamaika euskara.

<<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/tribuaren-berbak-3-denboraldia/4104751620001/4217260675001/xxi--mendean--hamaika-tribu--hamaika-euskara/>> [Azken kontsulta: 2018/07/20]

Zalbide, M. (2018). 1.3. Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. HIZNET, Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia-San Sebastián. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Eranskinak

1. Eranskina: Amodioa eta sexuaren unitateko hiztegia

LIGOTEOAZ

(Narrua) eskeiñi: Sexurako gogoak daukagunean norbaiti adierazi. *Eskeiñi najotsan, baiña azak emon jostazan. (BB)*

Errekauegin: Emakume edo gizonezko bati berarekin ibiltzea nahi duzula esan. *Denpora asko pasau zuan errekauegin orduko, baiña azkenian hasi zittuan alkarrekin goxo-goxo. (BB)*

Azak emon, kale emon, kulape emon, kalabazak eman/jaso, nokierokue eman. Norbaitek besteari nahi duena ukatu, batez ere ligatze kontuetan. *Gaur mutillak "borondate haundiko" jaonaz, azak ugari emoten jittune. Ze, nokierokue eman al din? Lasai, hurrungun onartukoin inbitaziye!(AN)*

Arrantzan ibili, mutiletan egin, neskatan egin, usaiñin ibili, tratuan (ibili), fitxak sartu, ehizan ibili, *dragatu*: Ligatu.

Ahokaie katiu, busti, enrollatu, liatu, lortu, mukiak jan, muxukatu, pega-pega eginda egon/ibili, txokora jun, *xopatu*, zeozetara ailleau: Elkar musukatzen ibili. *Hori dok moko jatia, laster paiñelua etara biharko juau. (BB)*

HARREMAN SEXUALAK

Astindue eman, igurtziak egin, eskua sartu, aztartue eman, igurtzi, eskulanak egin, zirri(ak) egin, jolasean ibili: Sexualki laztandu, pertsona biren artean laztandu. *Pelikulia ikusten baiño denpora gehixago pasau giñuan zirrixak egitten. Alde edarra jaon! (BB)*

Eskulanak ein, erruberan egin, kanpaia jo, idiarena egin/jo, txipiroia garbitu, eragin, behatza(k) sartu, partxisean aritu, santa ageda kantatu, astindu bat emun, ikutu, sagua klikatu, panderoa jo, atzamarrakin ibili, eskopeta garbitu, adarra jo: Masturbatu.

Adarra jo, kanpaia jo, idiarena egin/jo, eragin, erruberan egin, partxisean aritu, santa ageda kantatu, astindu bat emun, astinalditxo, zafraldi, eskopeta garbitu, eskulanak ein: Gizonezkoa masturbatu. *Aspaldixan baraurik najaok, eta erruberan besterik ez juat egitten. (BB)*

Atzamarrakin ibili, txipiroia garbitu, behatza(k) sartu, ikutu, sagua klikatu, panderoa jo, eskulanak ein: Emakumezkoa masturbatu. *Han ibili nintzonan atsaldian txipiroi garbitzen atzamarrakin, premiñia be bai gero! (BB)*

Almeja jan, zupa-zupia egin, txupatu, txupadie ein, jan, txirula jo: Alua jan. *Felipe, egidak zupa-zupia politto-politto. (BB)*

Labea berotu: Emakumezkoa sexurako gogoz jarri, berotu.

Egin, txortan egin, busti, bultzada, txakilletan egin, zasta-zasta egin, larrua jo, larrutan egin, jo, txolan egin, saiua euki, odolkia sartu, txurroa busti, izerdia partekatu, narrutan egin, tiki-tiki egin, sokatan egin, *amodioa egin*: Maitasuna egin. *Haren txolan ein biharrak ez eukan akaburik. (BB) Hanka puntetan be egingo giñuke txortan; ha zuan beroaldixa! (BB)*

Bukatu, korritu, busti, hustu, marmitak hustu (gizonezkoa), gaiñezka egin, ixuri: Orgasmora iritsi, mutila? *Sartziaz bat egin najuan gaiñezka. (BB)*

Txapapera bota: Txortan gabiltzanean, isuri baino lehen zakila atera. *Txapel barik gebizan eta, azkenian, txapapera bota bihar. (BB)*

ORGANO SEXUALAK

Erroskillak, pikua, pikupasa, pottolin, motxin, potot(a), hankatarte, potor, txitxi, txintxin, untxi, txotxamen, pottoka, tortola, josepatxo, pottotta: Alua. *Ha zuan ha pikua eta ez San Migeletakuak! (BB) Potor zuloaiño natxion lan honekin! (AZK)*

Adar, txitxarro, erreminta, isipu, txipiroi, txirula, platano, trabuko, odolki, kider, metaziri, buztan, antxoa txikia, Pitilin/ pittilin: Zakila. *Han jauan isipua etara eta txiza egiñan hormara. (BB)*

Adar puntak: Titi puntak: *Bero-bero jartzen najok horrek adar puntok kamisetan markauta ikustiak. (BB)*

Titi punting euki: Titi puntak gogortuta eduki

Zatuek, errapeak: Bularrak. *Zato earrak zauzken horrek!(AN)*

Titibalantzie: Bularrak balantzaka edukitzea. *Sostenak jaztie ahaztuta erten niñenan laxtreka itea eta hoi den titibalantzie ibili nuna!(AN)*

Oilo habiye: Bi bularren arteko tartea. *Gure amamak oilo-habiyen gorde ohi zinenan ezpañetako pinturie.(AN)*

Arrautzak, potroak, intxaurrek, marmidak, koskorak, koskabilluak, koxkoilak: barrabilak. *Baloiek juxtu koskorretan eman zixon:, Ura hotza jauan eta koskabilluak nun direnik be ez! (BB) Holako lasaitasunekin bizi leike, moteil. Hoixek dittuk koskabiluk! (AZK) . (AZK) Hik dauzkek marmittek, moteill!*

Odoloste: Biguna dagoen zakila. *Hogeta hamar zerbeza edan ostian, ordua aillegau zanian, odolostia moduan najakan: haundi-haundixa, bigun-biguna eta bal-baltza. Ezetarako be ez! (BB)*

Seitterdietan egon/euki: Zakila ez tentetu, hotza izan sexu kontuetan. *Hau dok jiria! Gaba osua neska batekin ibilli eta erlojua beti seitterdietan. (BB)*

Gogorra jarri, Jorgek egunonak emon, isipua gogortu, hamabiak jo, gogortu, tope jarri, harrotu, tentetu, kanpin egon, zutitu, tente jarri, kanpin denda egin, zirkua montau:

Zakila gogortu. *Goortute zaukeat. Gaur goizeko zazpiretan Jorgek egunonak emon jostazak izarapetik. (BB) Neska hue ikusi nunen tope jarri nitzen.*

Isatsandi, langa, isatsandi, isatsdun, kerten: 1. Zakil handia duen gizonezkoa edo gogortua.

Atzo pornua ikusten egon giñuazzen eta harek morroiak jakan kertena! (BB)

Pikua siku euki: Hotza izan sexu kontuetan (emakumezkoa). *Alperrik dok horren atzetik ibiltzia, burua berotu besterik ez dok egin bihar. Horrek pikua sikua jakak. (BB)*

SEXU GOGOZ

Adarzorrotz, apote, buztanzorrotz, pitilingorri, pottobero, susalbero, bero, pitobero, hankatrebero/a, obixpo: Harreman sexualetarako beti prest dagoen gizona, zakila beti pronto duena.

Xakilixut, txingalari: Larrutarako beti prest dagoena.

Pottobero, aurrebero, aketz: Sexu harremanetarako beti pronto dagoen emakumea.

Susalbero, aurrebero, adarzorrotz, aketz, armatente, buztanzorrotz, pitilingorri, pottobero, adi egon, beroaldia euki, pittirri-pittirri egon: Segituan susaltzen dena. Sexualki bero-bero eginda egoten dena. (Cachondo).

Aketz: 1. Beti harreman sexualak edukitzeko prest dagoena. 2. Gizonezkoa. 3. Antzutua.

Susara egon, altan egon, arkeria egon, berotuta egon, bero-bero egon, susara jua, adi egon, beroaldia euki, pittirri-pittirri egon: Sexu gogoz egon. Emakumezkoentzat erabili izan da, (cachonda). *Atso hoi susaa zio. Argi ibiltzia jaken aldemenian dabizen mutillak, arkeria samar najaon-eta. (BB)*

Adi egon, altan egon, bero-bero egon, altan egon, astarraldia euki, berotuta egon, susara egon, berotu arraio iña (egon), susa, gori goriye, susara jua, adi egon, beroaldia euki, pittirri-pittirri egon: Sexurako gogoz egon. *Ikusten dittuten neska danak edarrak jaozak; hau altan egotiau ez dok bape ona. (BB) Agarraue pea pea inde iteakun pittirri-pittirri jartze naun!(AN)*

PERTSONA ERAKARGARRIA

Adurra darixola egon, tuia erortzen egon, barea bezala arrastoa utzi: Miretsita begira egon. *Nobixua kriston idiskua dala-eta hor jabin adurra darixola Goreti. (BB)*

Afroi: Sexya, Sexualki erakargarria dena. *Hori don gauzia edarra! Harrapauko baneu afroi hori. (BB)*

Loran egon: Oso ederra edo erakargarria izan emakumea. *Berrogei urte eukiko jittuan, baiña oindio loran jaon. (BB)*

Txutxo: Pertsona polita eta erakargarria. *Nor zonan hire aurrian eguana? Hori don hori txutxua! (BB)*

Idixko, irixku: Gizon ederra eta erakargarria. *Hori don idixkua; Orlando Bloom bera be txiki lagatzen jon. (BB)*

Atxopabie, poxpolin, neska anpolari, panpin, panpoxa, etxerako modukoa, itxurosua, behor gaztie, oillandia, durdula: Neska ederra eta erakargarria. *Kriston atxopabie inde zion hire lengusue!(AN), Hori dok durdulia hori! Demasekua jaok! (BB)*

Ganadu ederra, uso-pase, kriston ganadue, mutil katxarruak, emiak, mutil puskak, hazienda ederra, kriston atsuak, harrobi, material onaiz. Mutil onak edo itxurazkoak. *Uso-pasie dau gaur, itxurie.*

Ganadu ederra, emiak, kriston ganadue, neska katxarruak, neska puskak, hazienda ederra, kriston atsuak Neska onak edo itxurazkoak. *Ikusi zelako ganadu ederra dauen taberna horretan! (BB)*

Errape puska, ATP Animaleko Titi Parea: *Begira ze ATPa*

Atze ederrak: Ipurdi polita eduki. *Atzezabala dala? Zer diñon hik? Atziak edarrak jakanaz horrek! (BB)*

Kamixeta txorterua: camiseta sexy. *Nun ingurau dek kamixeta txortero hori? Earki emateik!(AN)*

LIGOIA

Bandera, maribuztan: Ligatzeko neska erraza. *Nahixago neukek gaur gabian neska bandera batekin tope egingo baneu. (BB)*

Bandera kerten Ligatzeko mutil erraza. *Horixe don zapatu gaba pasatzeko falta jatan bandera kertena. (BB)*

Emoten dabena, narrua emoten dabena: Beroa den pertsona. *Zapatuan egon nintzuan berakin, eta ze ondo! Loran jaok, eta emoten dabena dok, gaiñera. (BB)*

Putre, txoriputa: Beti zain-zain dagoena, ligatzeari dagokionez.

Okil, pintxategi: Asko ligatzen duen neska. *Gaur ez jon azarik hartuko gure okillak, ondo preparauta etorri don erroa barrixekin. (BB)*

Jale, harrokillo/a, katar, pintxategi: ligoia, anitz xoputzen duena.

Katar, jale, pintxategi: Asko ligatzen duen edo ligatzea asko gustatzen zaion mutila. *Neska bat inguruan ikusi orduko, hor dok gure katarra. (BB)*

Bero, frakazale, mikroondas, ninfo: Beti sexurako prest dagoena, sexu zalea. Gizonezkoen atzetik dabilena. *Horrendako butanerua be balekua don; frakazale edarra don ba beroi! (BB).*

Gonazale, bero, ninfo, pitobero, trankatente adj. calentorro/a, mujeriego/a. Andreen atzetik dabilena. *Gonazalia neu be banok, baiña hori mandaeulixa baiño txarragua dok, higuinarrixa! (BB)*

Arperi: 1. Neska edo emakume gizonzalea. Batez ere, gizon ezkonduen atzetik dabilena. *"Hemen, hemen arperi hori!"*

Buztanaundi, likits, eskuarin, buztanbeltz, buztangorri, lepazuri, putanero, putaxka, sugea baino beroagoa izan, zakilixut: berotzaile.

Aurrebero, pitilingorri, pottobero, susalbero: Sexu kontuan sutua dena. *Aurreberua don, baiña ordua danian hoztu be segittuan egitten don. (BB)*

Jota-jota: Beti larrutan dabilen gizonezkoa. *Hor jatok gure jota-jotia gaba edarra pasauta. (BB)*

Eskuarin, mokokari, buztanaundi, buztanbeltz, buztangorri, putanero, putaxka, sugea baino beroagoa izan, zakilixut: berotzaile, borrokatzaile.

Likits, gizajo, lizun, lohi, zantar, buztanaundi, buztanbeltz, buztangorri, putanero, putaxka, sugea baino beroagoa izan, zakilixut, balakari, bilaba, hitz-faltsu, mihibiko, tipulanegar: Faltsua, zikina.

Zantar, lizun, lohi, likits: 1- Gauza txarrak egiten dituen. (BGP) 2- Ez atsegina, zatarra, zikina. 3- Lizuna. *Mendi altuen edurre, bota sutera egurre, alaba galanten amak mutil zantarren bildurre. (Bizkaiko koplak herrikoia)*

LIKIDOAK ETA BABESTEKOAK

Arrastada, txorrostada, esne, xamingoxo, hazi: Semena, ernal-hazia. *Mutrikuko Madalenetan neskatan egittia erreza dala jiñuek. (BB) Txorrostada-bankuan egon nitzuan martitzenian, eta edarto pagatzen juek. (BB)*

Ameriketako tio etorri, tio Ameriketatik etorri: Hilekoa etorri. *Bilddurtuta najaon. Oin dala hiru egun zonan etortzeko tio Ameriketatik, eta ez jakiñat abioia galdu-edo. (BB)*

Erdiko kaleko jaiak, hilabetekoak: Hilekoa. *-Ze, astebukaeran parranda? -Bai zea, parranda gutxi erdiko kaleko jaietan...*

Kartutxoa, tanpaxa: tanpoia *Tio Ameriketatik etorri jatan, eta kartutxo eta guzti urten jonat kalera. (BB)*

Txubaskero, txapel: Preserbatiboa.

BESTE

Atzelari, atzelaixe, marineska, marimutiko, ipurzale, popazale, popajole, popero, maritxu, titoli, marineska, marimutiko, ipurdi jale, popazale, popajole, olixue galdu, ipurdi jale: efeminatua, mutilekin liatzen den mutila. *Hori don idiskua hori! Baiña ez jakanau zeregiñik, poperua don-eta. (BB) Igorri nesken gauzek, danak gustatzen zaizko. Hori titolixe dana! (AZK)*

Joxe-joxepa: Emakume homosexuala. *Gizonakin hamar urtian bizi eta gero, konturau zan joxe-joxepia zala. (BB)*

Apo, apote, lazki, txerrama, adarzorrotz, armatente, buztanzorrotz: Putero. *Apotan asko egiten duena. Apote ederra egindda jaok; soldata erdixa lagatzen jok, narru joten! (BB)*

Apotan egin, argi gorritara jun, behobiara joan, puteri bixitia ittera juan, lumitara jun: Larrutan ordainduta egin. *Apotan habillenan txapela buruan eta... baita kertenian be. (BB)*

Biolin jotzailea izan, kandelabro lanetan ibili, lekuz kanpo egon, soberan egon: (ir de carabinas, tenir la chandelle)

Azukre kozkorra, bihotz(a), laztana, maitea, txiki, pittin, pitxurri, pottola/o, muñuñu, puttu, tuttu, pottoki: Maite duzunari zuzentzerakoan erabiltzen den hitz goxoa.

Goxo-lagun, ohaide: Maitale.

Larru -lagun: (Plan cul, follamigo)

Beteta, bonboarekin, dunbelakin, kargatuta, ernari, subiak pikau, ume iteko egon, esperoan egon, lepoaño inda eon, haraxeño: Haurdun. *Hamaxei urtekin kargaute geldiu den. (AZK) Subiak pikauta jaok. Sei hillabetekua bai, gutxienez.*

Adardun: Gizon bati honela esaten zaio bikotekidea beste gizonen batekin dabilenean. *"Pauxtin adardun handia duk, bere emaztea Martinekin baitzebilek!" (I)*

Ajetu, arkaizto, sabelehor, zistor (gizon) matxor: antzua.

Barau eta bijilixa: Jarduera gutxi sexu kontuetan. *Garizumia luzia dala? Hau barau eta bijilixa aldixau ez dok askoz motzaua! (BB)*

Txupetoi: (Suçon, chupón).

2. Eranskina : Aurkezpen jolasa

Launaka jarri (lagun berriak) eta bakoitzak bere historia konta dezala; beste hiruek galdera bana egiteko aukera dute. Amaitzean, 4en artean gehienez 10 hitzeko esaldi batera ekarri behar dute bestearen aurkezpena talde osoaren aurrean botatzeko

3. Eranskina : Manta jokoa

X neurriko manta baten gainean 5 pertsona jarri (5 lagun zutik estu sartzeko neurria). Mantari buelta eman behar diote bertatik atera gabe. Hasieran 2 minutu utziko dizkiegu nola egingo duten adosteko eta hortik aurrera isilik egin beharko dute.

4. Eranskina : Izenak ikasteko jolasa

Hasteko, bakoitzak bere izena eta bere lehenengo hizkiarekin hasten den izaki bizidun bat erran beharko du (Adib. Peio pinua, Koldo kaioa...). Ondoren, partaideak borobil batean jarriko dira zutik eta boluntario bat erdian jarriko da. Jarraian, kide batek bere izena eta animalia erranen ditu eta ondoren beste norbaitenak (adib. **Ibai Igaraba, Amets Astoa**) eta erdikoak beste norbait hori ukitu beharko du honek beste kide baten izena eta animalia erran aurretik. Erdian dagoenak norbait ukitzea lortuko balu, ukitua izanen dena joanen litzateke erdira. Jolas honek elkarren izenak barneratzeko balio izateaz gain, agian gainontzeko egunetan iraunen duen izengoiti xeble bat sortzeko balio lezake.

5. Eranskina : Argazkilariarena

Bikoteka, bata argazki kamara izanen da eta begiak hetsiko ditu, besteak, argazkilariak herriko txoko desberdinetan zehar gidatzen duen artean, argazkilariak argazkia ateratzeko moduko txoko bat begistatzen duenean, “klik” erranen du. Une horretan, argazki tresnak begiak idekiko ditu eta 5 segunduz egonen da begira. Ondoren berriro hetsiko ditu begiak, argazkilariak 10 argazki atera arte. 10 argazkiak aterata, argazkilari zein argazki tresnak rola aldatuko dituzte. Jolas honek, inizatiba hartu eta gidatzea edota bestearengan konfiantza jarri eta gidatua izatea landu eta biren arteko konplizitatetxoa sortzeaz gain, herriko txoko desberdinak ezagutzeko aukera emanen du.

6. Eranskina : Airera proba

Jolas honek taldeagan dugun konfiantza zuzenean proban jarriko du. Taldekide bat altura batean jarriko da zutik eta atzeraka edo aurreraka bota beharko du bere burua; bere kideek besotan hartu beharko dutelarik. Kideen besoz osaturiko koltxoi gainean dagoelarik, pertsona horrek hautatu beharko du jauzitto bat egin nahi duen ala ez. Horrela bada, koltxoia osatzen dutenek, hirura kontatu eta zentimetro batzuz botako dute airera, eta berriz jaso. Bere burua besteen beso artera botatzeko gai ikusten ez denak aukera ukanen du lurlean etzan eta taldekideek, besoak behar den lekuetan jarrita, altxa dezaten. Norbere beldurrak proban jarri

eta elkarrenganako konfiantza, taldearen indarra eta babesa sentitzeko aukera izanen da jolas hau.

7. Eranskina : Biografia linguistikoa egiteko galdera proposamen batzuk

Norberak interesgarrienak iruditzen zaizkion galderak nahi duen moduan garatzeko aukera ukanen du:

Zein hizkuntza jaso duzu familian?

Zein izan dira hizkuntzekiko gurasoen jokabideak?

Zein izan da eskolako hizkuntza nagusia?

Zein sentimendu sortu izan dizkizu hizkuntza bakoitzak?

Zein esperientziarekin lotzen dituzu?

Zein hizkuntza izan da nagusi eskolan, jardun akademikotik kanpo?

Eta kalean eta aisialdiko jardueretan?

Zein aukera izan duzu hizkuntza bakoitza erabiltzeko?

Ondoren, zer aldaketa izan duzu zure bizitzan hizkuntzei dagokionean?

Zer hautu linguistiko egin duzu zuk zure eguneroko espazioetan? Zergatik eta nola?

Zein ohitura barneratu dituzu?

Zein hizkuntzatan duzu baliabide gehien?

Erraztasun handiena?

Euskaraz zertaz aritzen zara erraztasunez?

Eta gaztelaniaz/frantsesez?

Lagunarteko elkarrizketetan zenbaterainoko lekua hartzen dute erdarek?

Euskalkian jarduten duzu?

Besteen arabera zure euskara aldatzeko ohitura duzu?

8. Eranskina : Zergatik eta zertara zatoz barnetegira, galdera proposamen batzuk

Nola zatoz, nondik zatoz, zergatik zatoz, zertarako ?

Zer gabezi, gogo eta behar dauzkazu gure lagunarteko hizkerari dagokionean?

Zer ikusten duzu zure hizkeran, zer zure ingurunean?

Zer ikusi nahi zenuke?

Zer izatea nahi dut barnetegi hau?

Zer helburu jartzen diot ene buruari?

9. Eranskina: Lehen eguneko talde handiko asanblada dinamizatzeko

Zergatik eta zertara galderak pausatu ondotik, berez datorren galdera da, “nola egingen dugu?” Galdera hori luzatuko zaie talde handiko asanbladan. Barnetegiaren egitarauaren aurkezpena egingen zaie, labur-labur, landuko diren atalak azalduz. Segidan, partaideei azpimarratuko zaie horien eskutan dagoela eskainirikoa zenbateraino baliatuko duten. Proposatutako dinamiketan erabat sartu eta barnetegiko egunerokoan hizkera adierazkorraz esperimintatzen ausartzea izanen da gakoa. Horretarako pausatuko dugu ondorengo galdera: Ditugun helburuak bete ahal izateko zer eskatzen diot ene buruari? Zer eskatzen diogu elkarri?

Erabaki batzuk hartu beharko dira:

Hika egingen dugu elkarrekin?

Egunerokoan elkar lagundu eta elkarri oroitarazi beharko diogu.

Elkar berrartuko dugu ? Elkarri aholkuak eman? Elkar zuzendu ?

Nola jokatu dugu erdarakadekin ? Elkarri ohartarazi eta euskarazkoak bilatzeko ohitura hartuko dugu ala naturalizat joko ditugu?

Elkarrengandik aberastea izanen da helburua, elkar adierazkortasunez kutsatzea. Bakoitzak gure euskalki/hizkeran egingen dugu ala bestearenera moldatzen saiatuko gara?

Helburua adierazkortasuna lantzea izanik, baldintza adierazkortasuna izan beharko litzateke, gure edo bestearen aukeratzeko orduan. Gure hizkeratik adierazkorrena egiten zaiguna atxiki eta besteenetik adierazkorra egiten zaiguna hartzea izanen da modua.

Elkar etengabe baloratzearen garrantzia azpimarratuko dugu: « Maitatu dut nola adierazi duzun hori... Bua zer erramolde ona ! ... » Beste batengandik hori entzuteak indartuko baitigu erabilera; konfiantza eta ausardia emanen dizkigu, baita konplizitatea eta ongi sentitzea ere. Gaueko binakako balorazioan hau indartzen saiatuko gara.

Antolaketaren inguruko oharrak eginen dira gero. Elkarbizitzaren ingurukoak. Hemen ere bakoitzak bere beharrak adieraziko ditu eta batera hartuko ditugu erabakiak. Pentsatu dugun ordutegiaren berri emanen zaie, ea ongi iruditzen zaien galde eginez, hala ez balitz denen artean adostuko genuke berria. Txukuntze eta garbiketaren ardura taulak beteko dira. Esnatze jolasaren dinamika azalduko zaie eta bakoitzak (kopuruaren arabera egun batzuetan binaka) bere eguna aukeratuko du. Postitlari eta Galtxagorri figurak ere azalduko zaizkie.

10. Eranskina: Telepathy jolasa

Lehen gaueko gaubela Telepathy jolasa izanen da. Irudi desberdinak dauzkaten kartak, arezko denbora neurgailua eta paper eta axotak beharko dira.

Hastea tokatzen zaion jolaskideak karta bat aterako du. Egokitutako denbora tartean irudi horri begira burua etortzen zaizkion ahal bezainbat hitz idatzi beharko ditu. Aldi berean, gainontzeko jokalariaik, berak idatzi dituen hitzak asmatu eta horien paperean idazten saiatuko dira. Hitz gehien asmatu dituen jokalariaik asmatutako hitzak adina puntu jasoko ditu, baita karta atera duen jokalariaik ere. Besteak punturik gabe geratuko dira. Jarraian, hasi denaren eskuineko jokalariairen txanda izanen da.

Jolas honek ikusitakoari ahal bezainbat hitz eta ahal bezain egokiak jartzera trebatzeaz gain, gure hitzak beste jokalariairenetara egokitzea bultzatzen du. Lehen eguna gozagarriki bukatzeko jolas interesgarri bezain dibertigarria iruditu zaigu.

11. Eranskina: Binaka hika eztabaidatzeko gai proposamenak

- Zer deritzozue haurrak eskolan hezi beharrean etxean hezteari?
- Kirurgia estetikoa, bai ala ez?
- Telebista ikusteak, gizartean modu negatiboan eragiten duela uste duzu?
- Zer zigor mekanismo eduki beharko genuke jendarte ideal batean? Zer deritzozu isunak, kartzela eta heriotza zigorrari buruz?
- Eutanasia, bai ala ez?
- Debekatuko al zenuke buru-zapia eskolan erabiltzea?

- Zer diozu praktika begano eta filosofia antiezpezistari buruz?
- Etxerako lanak bidaltzearen alde ala aurka zaude?

12. Eranskina : Bigarren eguneko gogoeta, hitanoaz

Eztabaida bideratzeko galdera posibleak:

Zer da hitanoa?

Zer aportatzen du erregistro informalean?

Nolako egoeran dago gaur egun?

Berreskuratzeak merezi digu?

Nola egin beharko litzateke?

Zer zailtasun eta indargune edukiko genituzke horretan?

13. Eranskina: Hirugarren eguneko gonbidatuagandik jaso nahi duguna

Hiztun berriak dira konfiantza eta ausardia linguistikoa lantzeko bide horretan eredu. Hizkuntza bat ikasi eta erabilerarako urrats horretan sentipen desberdinak bizi izan dituzte. Gaizki hitz egin arren, erabilitako hizkuntzarekiko ziurtasun gutxi eduki arren, behin eta berriz ausartu behar izan dira, hizkuntza berri horretan konfiantzan sentitu arte, oztopoak gainditu eta lortu dutenen lekukotasunak jasotzea biziki interesgarria litzateke. Honenbestez, euskaldun berri bat izanen da hirugarren eguneko gonbidatu.

Bere biografia linguistikoa egiteko eskatuko diogu. Hona bideratzeko luza diezazkiokegun galderak :

Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Nola ikasi duzu?

Nola sentitu izan zara bide horretan?

Noiz hasi zinen euskaraz hitz egitera ausartzen?

Nola sentitzen zinen hasieran euskaraz hitz egitean?

Zer zailtasun eta oztopo ukan dituzu?

Zer egin zaizu lagungarri?

Nola landu duzu konfiantza?

Zerk lagundu zaitu ausartzen, zerk ez?

Zer satisfakzio daukazu orain?

Zer bizipen dituzu euskararekiko?

Euskara adierazkorra da zuretzat?

Hizkuntza lantzeko beharra sumatu duzu inoiz? Zertan?

Nola hasi zinen lantzen?

Zein helbururekin?

Eta nola izan da bidea? Nola egiten da?

Nola astindu dituzu lotsak ezagutzen zintuen jendeak “beste modu batera” erraten zenuela ikustean?

Zailtasunak? Irabaziak?

Gaur egun zaila egiten zaizu esapide edo hitz berri bat zure hiztegian sartzea?

14. Eranskina : Kutxa jolasa

Partaide bakoitzak hizkera adierazkorraren inguruko pare bat proba dibertigarri idatziko ditu eta kutxa batean sartu. Jolaskideak borobilean eseriko dira eta kutxa eskuz esku pasatuko da musika entzun bitartean. Musika gelditzean, kutxa esku artean duen jolaskideak papertxo bat hartu beharko du kutxa barnetik eta bertan agertzen den proba egin.

15. Eranskina: Ginkana

Herriko pertsona adierazkor desberdinak herrian zehar banaturik egonen dira eta proba bat prestatu beharko dute. Taldekideek herritar batengana iristean, proba hori egin eta esaera zahar bat jasoko dute saritzat. Ondoren asmakizun baten bidez bideratuko dira partaideak hurrengo herritarra dagoen lekura. Probak hizkeraren ingurukoak izanen dira.

16. Eranskina: Gaubelarako jolas lehiakorra

Lehen 5 minutuetan bakoitzak hitz desberdinak idatziko ditu papertxoetan. Gero bi talde egingen dira eta jolasa hasiko. A taldeko jokalaria bat aterako da eta minutu bateko tartean ahal bezainbat hitz asmarazi beharko dizkie bere taldekideei, horretarako hitzezko deskribapen edo azalpen bat eman beharko du. Taldekideek hitza asmatzean, papertxoa gordeko du, hitza asmatzen ez dutela ikustean ordea, papertxoa berriro kutxan sartu eta beste bat hartzeko aukera dauka, errazago asmatuko dutelakoan.

Denbora amaitzean, B taldeko jokalaria bat aterako da bere taldekideei hitzak modu berean asmaraztera. Jokalariak bere taldearen txanda denean soilik saia daitezke hitzak asmatzen, bestela ez.

Kutxako papertxo guziak amaitzean, talde bakoitzak bere papertxo kopurua zenbatuko du, gehien dauzkana kokatzen da garaile postuan. Jada jolasa 2.mailara igaroko da. Papertxo guziak berriz ere kutxan sartuko dira eta aurreratzean, hitz berak imintzio bidez asmarazi beharko zaizkio taldeari. 3.maila papereko hitzak beste hitz bat soilik erabilia asmaraztea izanen da.

17. Eranskina : Azken eguneko baloraziorako galdetegi proposamena

Barnetegi hasieran nituen helburuak bete ditut ? Zein bai zein ez ? Zergatik ?

Zertan da adierazkorragoa ene hizkera ? Zer hitz eta esamolde erabili eta erabiliko ditut ?

Zertarako ?

Zer sentipen daukat orain ene mintzamoldearekiko ? Ingurukoenarekiko ?

Zer hobetuko nuke ? Nola ?

Ene egunerokoan nola segituko dut hau lantzen ?

Zertan emanen dut indarra ? Nola ?

Nor ukanen dut bidelagun ?

Nork aportatuko dit hizkeraren adierazkortasunean ?

Nori aportatuko diot ? Nor kutsa nezake ? Edo motibatu lanketan ?

Nolako esperientzia izan da ? Zerk aportatu dit gehien ? Zer hutsune sumatu ditut ? Zer hobetuko nuke ?

Zer gogoeta eragin dizkit ?

Zer sentipen ?

18. Eranskina : Etorkizunera begira adierazkortasunaren lanketarako jarraibideak zehazteko galdera proposamenak

Nola jarraituko dugu hau lantzen guk, talde bezala?

Nola bultzatuko dugu Euskal Herri mailan adierazkortasunaren lanketa?

Zer urrats emanen ditugu epe motzera zein epe luzera?

Barnetegia izan liteke tresna baliagarri bat ?

Nola ? Norentzat ? Norekin ?

Nola zabaldu euskarazko adierazkortasuna lantzeko sentsibiltate hau ?

Nola iritsi gizarteko eredu direnengana ?

Hezitzaile, irakasle, kultur eragile zein hedabideetako hizlariekin nola eman lanketa hau?

Ardurak banatuko ditugu eta topaguneak jarri.